



**"Ez zait entrenatzea kostatzen.  
Eskaladarik barik hutsune  
moduko bat sentituko nuke"**

**Kirola** • 16 urte besterik ez eta zailtasun maila handiko eskalada bideak igo ditu Ainhize Belar atxondarrak. 8c mailako beste bide bat igo gura du Gabon egunetan. • **34**



## Hertzainak, Gasteizera begira

Hertzainak taldeak BEC birritan bete zuen joan zen asteburuan. 'Azkena gure alde' biraren amaieragaz, taldeak agur esango die eszenatokiei. Josu Zabala musikariak Bilboko kontzertuan bizitakoa eta taldearen ibilbidea errepasatu ditu ANBOTOk egindako elkarrizketan. • **2-3**

GAIZKA PEÑAFIEL

## Atxondo Harrera Herria Axpeko etxera bueltan

**Atxondo** • Joan zen asteburuan, Atxondo Harrera Herria Axpeko etxera bueltatzeko erabakia hartu zuen. Bertan daude harrezkero. • **6**

**ARGENTINAKO ENPANADAREN BENETAKO  
ZAPOREA HELDU DA DURANGORA!**



Eskaneatu QRa  
eta ezagutu guri  
buruz gehiago!

BISITA GAITZAZU: 📍 FRAY JUAN DE ZUMARRAGA 3 | 📞 623 168 280



“Jendearen harrera beroa izan da inportanteena”

Josu Zabala  
Ajuriagerra

Musikaria

OTXANDIO | 1954



OTXANDIO • J. GUENETXEA/E. HERRERA

**BECen joan zen asteburuan emandako kontzertu bien ajea pasatu berri, Gasteizera begira jarrita dago Josu Zabala musikaria. Hertzainak taldeak hantxe emango du bere azken kontzertua, urtarrilaren 6an. Otxandioko Mekoleta auzoan, Zabalak eskuzabal hartu ditu ANBOTOKo kazetariak.**

**Errekuperatu zara joan zen asteko kontzertuetatik?**

Bai, bai, erraz gainera. Kontzertuetan berez ez gara nekatzen. Kontzertu aurreko zereginetan bai, nekatzen gara: soinu probetan, arregloak egiten.. Antolaketan nekatzen gara. Kontzertuan disfrutatzeraz joaten gara.

**Zein sentsazio geratu zaizue?**

Barikuan zapatuan baino gorabehera tekniko gehiago izan ziren. Pertsonalki, bigarrenaren lehenengoan baino gehiago disfrutatu nuen. Lehenengoa beti izaten da zailagoa. Bandak oraindik ez dauka rodajerik, eta hori inportantea da. Tentsioa areagotzen zuten beste kontu batzuk ere ba zeuden, telebista eta abar. Musikari berriak uztartzea ere kontuan hartzekoa izan zen eta guztiari segida arina eman gura genion. Gu kontzertu azkarrak ematera ohituta geunden, aldaketarik

barik eta kantu batetik bestera segidan pasatuz. Kasu honetan, abesti hasieretan elkarri begira geratzen ginen, ea sokakoak prest zeuden eta abar.

**Zuen ohiko kontzertuekin alderatuz ezberdina izan zen.**

Guretzat kontzertu ezberdin bat izan zen. Prentsaurrekoan esan nuen kontzertu hauek aberatsen moduan egingo genituela, historia guztian miserable batzuk izanda gero. Azkenean, aberatsen tankeran egin nahi genuen kontzertua, baina horrek bere zama ere badauka. Jendearen harrera beroa izan da inportanteena. Kontzertu batean, publikoak zeresan handia du arrakastari begira, eta kasu honetan ere horrela izan da. Publikoak dena errazten du.

**“Amets Arzallusek oso ondo esan zuen Navarra Arenan Euskal Herriak kantu eta letra berriak behar dituela. Lekua uztea da orain guri tokatzen zaiguna”**

Gauzak oker dabiltzanean publikoak ondo erantzuten badu, dena hobera doa.

**Ordu eta erdiko kontzertu bi, bariku eta zapatu. Exigentea izan zen?**

Horixe zen nire kezka partikularra. Ia fisikoki aguantatuko nuen hainbeste denboran jo gabe egon eta gero. Baina nik beti esaten dut oholtza dela medizinarik onena. Egia esan, horrelako publiko bat aurrean duzunean ez zara nekatzen. Plazer ikaragarria da eta gaixotasun guztiak desagertzen dira bat-batean.

**BEC birritan bete duzue eta orain Gasteiz geratzen da. Erantzun hori espero zenuten?**

Ez nuen horrelako erantzunik espero. BECen egitea proposatu zigutenean astakeria bat zela pentsatu nuen, hobe zela aurrekoan bezala Euskaldunan egitea. Gure ego putakume hori asko poztu eta puzten da horrelako gauzekin. Ez da erraza azaltzen zein eragin duen hainbeste urteren ondoren taldea amortizatutzat ematen dugunean jendearen partetik gure abestiak entzuteko horrelako gose eta egarria sentitzeak. Mila esker hainbat kantu lapurtu dizkigun jende horri, beraienak egin eta sentiaraztearren kantu horiek jadanik ez direla gureak. Hori sortzaile batentzat saririk onena da.

**Berriro elkartu zarete entsegue-tarako. Zein kimika sortu da zuen artean?**

Gure artean beti egon izan da tentsio handia: eztabaidak, bronkak eta denerik, betiko moduan.

**Urteek ez dute hori baretu?**

Gure kasuan uste dut ez dugula asko meioratu. Agian hori da gure izaera. Guretzat oso garrantzitsua da egiten ari garena eta oso serio hartzen dugu. Bakoitzak gure ikuspuntua du eta batzuetan ez dugu bat egiten. Gure DNAREN zati inportantea da hori, eta beti izan da.

**Zuen abesti guztiak klasikoak dira. Kontzertu baterako aukeraketa egitea ez zen erraza izango.**

Ez da erraza izan. Zerrenda luze bat egin genuen. Abesti batzuk lehengo modura bota ditugu kontzertu hauetan, baina gehienak berrikusi egin ditugu. Kolabora-

**“BECerako sorpresa asko genituen, baina denak iragarri ziren kontzertura orduko. Oraingo honetan hobe dugu isilik egon”**

tzaileak, soka-laukotea, metalak... lehenengoz izan ditugu laguntzaile. Oso jende jatorragaz topo egin dugu eta laguntza itzela eman digute. Lan prozesu luze eta mami-

tsua izan da. Txarrena da guztiok utzi ditugula gure kantu kutun batzuk sartu barik. Orain Gasteizkora begira ari gara ea beste kanturen bat errekuperatzen dugun. Hor geratu dira *Kamarada, Drogak AEKn, Salda Badago, Egunero...*

**Gasteizkoa behin betiko agurra izango da?**

Nik uste dut baietz. Gu harakiri perfektua egiten saiatu gara. Ez-pata oso ondo zorrozuta dago eta hutsik ez egitea espero dugu. Eta gero gerokoak. Badakigu askotan esaten duguna jan egin behar izaten dugula. Baina uste dut horrela planteatu dugula hau, eta saiatuko gara ematen dugun berbarekin fidelak izaten. Tokatzen dela uste dut. Amets Arzallusek oso ondo esan zuen Nafarroa Arenan Euskal Herriak kantu eta letra berriak behar dituela. Lekua uztea da orain guri tokatzen zaiguna. Urte askoan lekua utzi genuen eta orain berriro lekua utziko diegu sortzaile eta kantu berriei.

**Geratzen zaizue arantzarik ziklo itxiera honetan?**

Arantza pila bat. Askotan gauzak ez dira ateratzen nahi duzun moduan. Baina horren gainera pribilegiatuaren sentsazioa geratzen zait. Uste dut pribilegio bat dela hainbeste urteren ostean taldea gogoratua izatea. Sasoi hartan

egindako hainbat kantuk gaur egun oraindik zentzua dutela sentitzen dut.

#### Zer esango lioke Hertzainaken hasierako Josuk gaur egungoari?

Seguraski hona nola heldu naizen galdetuko lidake, eta "Aspaldi desagertu behar zinen, betiko, baina zergatik zaude oraindik jendeari kaparrada ematen?", galdetuko lidake. Edonola ere, filosofikoki Josu harekin oso fidela naizela sentitzen dut. Fisikoki aldatu naiz, baina filosofikoki gazte hura errekonozitzen dut eta hark ere errekonozituko nindukeela esango nuke.

#### Eta Josu honek gazte hari?

Gure garai eta inguruaren ondorio gara denok. Gu ingurua moldatzen saiatu ginen, dena aldatu nahi genuen. Gauza batzuk aldatu genituela esango nuke, baina munduak gu ere aldatu gaitu eta prozesu hori ebitaezina da.

#### Gasteizen hasi zineten eta Gasteizen amaituko duzue ibilbidea. Zelakoa zen 80ko hamarkadako Gasteiz?

Hasteko, hiri erdalduna zen. Trauma itzela izan zuen 1976ko martxoaren 3an langile borrokan 5 behargin hil zituztenean. Oso hiri kontserbadorea izan zena berpiztu egin zen eta mugimendu garrantzitsuak izan zituen. Trantsizioa bukatu zenean suposatzen zen Espainian libertate berriak estreinatzen zirela, eta Zapatari kalekoa gertatu zen. Alde Zaharreko kale hori txikiteroena zen eta bizpahiru urtean zeharo aldatu zen. Rock tabernek inbaditu zuten. Txikiteroak pikutara joan ziren, beste kale batzuetara, eta inguru hori gazte bete zen. Garai hartan gazteek zati handi bat betetzen zuten gizartearen piramidean. Gazte asko ginen eta kale berean baten ginen. Arazo kolektiboak erantzun kolektibo bat ematen hasi ginen. Hor mugimendu kontrakultural oso inportante bat egosten hasi zen. Bat-batean, kaleak baretu egin behar zirela erabaki zuten politikariek, eta ez genuela matrakarrik eman behar.

Abandonatu egin gintuzten. Ez geneukan babesik. Ez zegoen kulturarik. Telebista bakarra zegoen. Gu geure entretenimendua sortzen hasi ginen. Testuinguru horretan sortu zen gaztetxeen mugimendua, soldaduskaren kontrako mugimendua, etxebizitzien okupazioa... Mugimendu horiek guztiak kale bakar batean kontzentratuta egoteak Gasteizko mugimendu kontrakulturala indartzea ekarri zuen. Hala Bedi irratia, gaztetxea eta fanzineak ere sortu ziren, besteak beste. Lehenengo rock taldeak sortu ziren. Kale horretan bertan hasi ginen jotzen, eta publikoa bertan zegoen. Aupada itzela izan genuen segituan, elkarrekin bizi ginelako.

#### Erdalgune batean euskaraz abesteko hautua egin zenuten.

Beti esaten dut gu bezalako taldea Gasteizen bakarrik sortu zitekeela. Tolosan sortu izan bagina akatu egingo gintuzten. Sasoi hartan, euskaldunak ez zuten batere ondo ikusten egiten genuena. Euskaldunen ustez, arrotzak eta drogazaleak ginen. Antieuskaldunak, nolabait. Inork ere ez zuen pentsatzen gurea euskalduna izateko modu egokia zenik. Hango gazte erdaldunak ez zuten ulertzen zer esaten genuen, baina bazekiten beraien kezka azaltzen genituela; euskara lapurtu zigutela eta berreskuratu beharreko gauza bat zela. Babestu egiten gintuzten, nahiz eta ez ulertu. Hasieran galdetzen ziguten zergatik ez genuen erdaraz kantatzen. Gure hautu bat zen eta jendeak oso ondo ulertu zuen. Euskara oztipoa izan beharrean plus bat bihurtu zen askorentzat. Euskaldunentzat plusa ez zena erdaldunentzat plus bat izan zen.

#### Aurreikusi duzue sorpresarik Gasteizko azken kontzerturako?

Bai, baina esaten badituzte ez dira sorpresa izango. BECerako sorpresa asko genituen, baina denak iragarri ziren kontzertura orduko, eta, beraz, ez zen sorpresa handirik izan. Oraingo honetan ez dadila nigatik izan. Horretarako, hobe dugu isilik egon.



BECen joan zen asteburuan Hertzainak taldeak emandako kontzertuaren argazkiak. GAIZKA PEÑAFIEL.

# GAER



## DESINFEKZIOAK

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

# Seguros Bilbao

## RUEDA BILBAO ASEGURUAK Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

# Durango Udalak eta Espainiako gobernuak 3,6 milioi euroko diru laguntza sinatu dute Aramotz berritzeko

Ima Garrastatxu alkateak eta Raquel Sánchez Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroak akordioa sinatu dute aste honetan, Madrilan. Aramotz berritzeko diru laguntzek auzoko hainbat arazo konpontzeko balioko dute

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Orain hile batzuk aurreraturikoa asteen bete da. Aramotz auzoa berritzeko diru laguntzak ofizial egin dituzte Madrilan. Ima Garrastatxu Durango alkatea bertan izan da, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroan. Berak eta Raquel Sánchez ministroak 3,6 milioi euroko diru laguntzak sinatu dituzte Aramotz auzoa berritzeko. Laguntzek auzoko hainbat arazo konpontzeko balioko dute. Bate-tik, bizilagunen etxebizitzetako fatxadak konpontzeko, isolamendu lanak egiteko zein igogailuak eraikitzeak. Esku hartze horiek 128 etxebizitzatan eta 6 lokaletan egitea dago aurreikusita. Bestetik, auzoan urbanizazio lanak egiteko aukera baliatu gura du udalak. Errekastoa desbideratzea, panel akustikoak berritzea eta txirrindularientzat bidegorria egitea daude aurreikusita.

3,6 milioi euroko laguntza hauek Next Generation izeneko funtsetatik datoz. Funtsoak, Euro-

par Batasunak kudeatzen ditu, bertako kide diren estatuen artean. Espainiako gobernuak Durango Udalarik emango dio funtsen zati bat. Durango izan da, Espainiako estatuko beste hiru udalerrigaz batera, funtsak jaso dituen lehengo. Dena dela, honako hau ez da Aramotz berritzeko dagoen la-

guntza bakarra. Joan zen otsailean, Eusko Jaurlaritzak 1.250.000 euroko ekarpena egin zuen, auzo inguruak berritzen laguntzeko. Ima Garrastatxu alkatearen berbetan, "oso egun garrantzitsua" da durangarrentzat eta Aramotzeko bizilagunentzat, "hainbeste denboran zain egon ondoren laguntza horiek

Durangora ailegatu direlako behingoz". Durango EAJk ere "txalotu" du akordioa. Dena dela, Mireia Elkoroiribe bozeramaileak azpimarratu du "Aramotz hirigintzatik eta energetik lehengoratzeko proiektua 2018an hasi zela", EAJk eta PSE-EEK egindako legegintzaldian, hain zuzen ere.



Ima Garrastatxu eta Raquel Sánchez akordioa sinatzen.

## Durango 217.628 euro erabiliko ditu lan kontratu mugagabeak sustatzeko

### DURANGO • M.Z.

Durango Udalak langabeak kontratatzeke laguntzen deialdia zabaldu du eta 217.628 euro bideratuko ditu Lanbideren ekarpenaren bitartez. Lan legedia aldatu ondoren, laguntza horiek kontratu mugagabeak sustatzeko balioko dute lehengo, eta horri eskerrak laguntza horiek enplegu egonkorra eta kalitatekoa finkatzen lagunduko dute.

Deialdia zabalik dago dagoeneko eta otsailaren 15ean amaituko da. 2022ko urtarrilaren 1etik ekainaren 30era bitartean formalizaturiko kontratuak lagunduko dira. Eskabideak HAZen zein udalaren egoitza elektronikoa aurkeztu ahal izango dira.

"Ezgonkortasun ekonomikoak enplegu egonkorra eta kalitatekoa kontratatzeke gaitasuna ez murriztea gura dugu, eta, beraz, udalak berriro martxan ipiniko du langabeentzako deialdia", azaldu dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julián Ríos alkateordeak.

## "Beste era batera ezagutuko ez nituzkeen herritarrak ezagutu ahal izan ditut politikari eskerrak"

Fernando Castillo Rodríguez (Durango, 1970) sozialistak amaitutzat eman du bere zinegotzi ibilbidea. Ia hiru hamarkada egin ditu udal politikan, 21 Durango PSE-EEren ordezkari

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Hamarkadatarako ibilbidea egin eta gero, Fernando Castillok zinegotzi kargua uztea erabaki du. 21 urte egin ditu Durango PSE-EEren ordezkari, eta asteen egindako osoko bilkuran erabaki du ibilbidea amaitzea. "Ailegatu da ordua pauso bat bazterrerara egin eta berriei lekua egiteko. Dena dela, zinegotzi kargua uztearen arrazoi nagusia lana da. Momentu honetan lana

patxadaz egin ezinda lez nabil, politikari lana zein ogibide dudana ganoraz egiteko tarterik barik. Eta nik %100 egon gura dut neure lanbidean. Politika hobby garestia da".

Atzean utzi ditu Abadiño Udalean ordezkari politiko lez egindako legegintzaldia eta udaletzeko tentsioetatik kanpora egindako beste. Ibilbideak askorako balio izan diola adierazi du: "Politikari zor diot beste era batera ezagutuko

ez nituzkeen herritarrak ezagutzea, haiei entzutea eta haiekin berba egitea". Bestalde, ibilbide osoan zehar bizi izandako momentu gazi-gozoei buruz, ez du dudarik: "2000ko ekainaren 4koa da bizi izan dudana unerik gogorrena. ETAK Jesus Mari Pedrosa zinegotzia hil zuen eguna. Momentu politen artean, familia bati Brasilen preso egondako senide bat ekartzen lagundu izana aipatu du.



Fernando Castillo Rodríguez.

**anboto** ▶

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2022ko abenduaren 23a  
21. urtea - 919. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hizkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Gizon bat atxilotu dute Durangon bikotekide ohiarenganako urruntze agindua urratzea egotzita

Atxilotua 31 urteko gizonetza da. Ertzaintzak eguazten goizaldean atxilotu zuen Durangon, biktimaren etxean. Epaileen esku utzi dute. Biktima onik dagoela jakinarazi dute

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Ertzaintzak 31 urteko gizonetza bat atxilotu zuen eguazten goizaldean Durangon, bikotekide ohiarengandik aldentzeko agindu judiziala urratzea egotzita. Atxiloteta etxebizitza batean egin zuten. Agenteak etxera sartu ziren, eta biktima eta adin txikiko bat lokalizatu zituzten barruan. Azken hauek kalera irten zuten, "onik", polizia agenteek lagunduta. Atxilotua ere biktimaren etxean lokalizatu zuten. Etxea miazterakoan topatu zuten, ezkutatuta. Ertzaintzak "neurri judizialak urratzeagaitik" eta "genero-indarkeriaren delituagaitik" atxilotu zuen, eta epailearen esku utzi.



Indarkeria matxista gaitzesteko kartela lurretatik Durangorako sarreran.

## Kalean da 'Amorebieta-Etxano: Ondarea, Artea eta Historia' monografikoa

10 euro balio du eta Zelaieta Zentroan eskuratu daiteke

**ZORNOTZA • M.Z.**

Zornotzako Udalak sei egilegatz batera egindako *Amorebieta-Etxano: Ondarea, Artea eta Historia* monografikoa kalean da dagoeneko. Liburua Zelaieta Zentroan dago eskuragarri liburua, 10

euroren truke. Monografikoan honako autore hauek parte hartu dute: María Romerok, Alberto Santanak, Raquel Cillak, Juan Manuel Gonzalezek, Gorka Pérez de la Peñak eta Iñigo Sarriugartek.



'Amorebieta-Etxano: Ondarea, Arte eta Historia' monografikoa.

## Elkartasun Biltegiak neguko arropa batzeko kanpaina egingo du

**DURANGO • E.H.**

Durangaldeko Elkartasun Biltegiak arropa batzeko kanpaina egingo du hile honen amaieran.

Abenduaren 30ean gune bat egokituko dute arropa hori batzeko, Durangoko Andra Marian. Bilketa 17:00etan egingo dute.



Durangaldeko Elkartasun Biltegiaren aurkezpena, uztailean.

## Pertsona zaintzaileek euren emozioak ateratzen ikasteko aukera izango dute Zornotzan

Tailerra Nagusi Aretoan emango dute. Hiru saio izango dira: urtarrilaren 11n, 18an eta 25ean

**ZORNOTZA • M.Z.**

Zornotzako Udalak *Artemozioa: emozioak margotzen* tailerra antolatu du Zainduz programaren bitartez. Pinturaren bidez, pertsona zaintzaileek emozioak modu leunean adierazten eta azaleratzen ikasiko dute, modu naturalean ateratzen utziz. Tailerra Nagusi Aretoan emango dute eta hiru saio izango dira: urtarrilaren 11n, 18an eta 25ean, 16:00etatik 18:00etara. Izen ematea urtarrilaren 6ra arte dago zabalik.



Nagusi Aretoan erabiltzaileak.

**HEZKUNTZA PUBLIKOA ETXEBIZITZA  
ENERGIA PUBLIKOA TRANTSIZIO EKOLOGIKOA  
OSASUN PUBLIKOA BERDINTASUNA  
ENPLEGU EGONKORRA ETA KALITATEZKOA  
ERREFORMA FISKALA**

**Gure desiorik onenak 2023rako**

**Podemos**  
**Ahal Dugu**  
Durangaldea

# "Ezin gara besoak gurutzatuta geratu eta, beste alternatibarik eman ez digutenez, Axpeko etxera bueltatzea erabaki dugu"

Urriaren 6tik kalean bizitzen egon dira Harrera Herriko kideak. Axpeko etxera bueltatzeko erabakia hartu zuten asteburuan, eta bertan daude dagoeneko

## ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hile bi pasatxoan kalean egon eta gero, Atxondoko Harrera Herriko kideak Axpeko Aterpetxera bueltatu dira asteon. "Ezin gara besoak gurutzatuta geratu eta, beste alternatibarik eman ez digutenez, Axpeko etxera bueltatzeko erabakia hartu dugu asteburuan", adierazi dute Harrera Herrikoek. Abenduaren 18a Migratzaileen Nazioarteko Eguna izan zen eta Atxondon egun hori aldarrikatzeko baliatu zuten. Eta, bertan, berriro Axpeko etxera bueltatzea erabaki zuten. "Zapore gazi gozoa dugula ezin dugu ukatu. Gozoa berriro gure etxera bueltatzen garelako eta Harrera proiektuagaz aurrera jarraituko dugulako. Gazia ez delako hasieran uste genuen modukoa", gehitu dute.

Harrerakoak urriaren 6tik daude kalean. Orduan, udalak esan zien ezin zirela Axpeko aterpetxean sartu, eta aste honetara arte kalean egon dira. Hasieran kanpalekua muntatu zuten udaletxe azpian, eta bertan egon ziren zenbait



Atxondo Harrera Herrikoak Axpeko etxera bueltatu dira. JON GARATE ONDARRE

egunez. Azaroaren 3an, udalagaz batzar bat egin ostean eta zenbait konpromiso hartu eta gero, kanpalekua desmuntatu zuten. Baina udalak batzarreko konpromisoak bete ez zituela ikusi zutenean,

berriro kanpalekua muntatzea erabaki zuten. Azaroaren 15ean bizitokia berriro prestatu eta abenduaren 19ra bitartean udaletxe azpian egon dira lotan Harrerakoak. Harrerako kideek azaldu dutenez,

ezin dute berdin jarraitu. "Negua bertan dugu eta ezin dugu egoera hau gehiago luzatu. Gogorra de jendea kale gorrian egotea hotza eta gosea eguneroko ogia direnean", nabarmendu dute.

Beraz, kalean bizitzeari amaiera eman diote Harrera Taldeko kideek asteon. Udaletxe azpiko kanpamentua desmuntatu eta Axpeko Aterpetxera bueltatu dira. "Etxera bueltatzen garela publikoki esatera gatoz, eraikin hau herriarena delako eta ez udalarena. Gainera, argi geratu da gure herriak Harre-

**"Negua bertan dugu eta ezin dugu egoera larri hau gehiago luzatu"**

ra herria izaten jarraitzeko nahia duela. Alkateari ere komunikatu diogu gure erabakia. Ez dugu ezer ezkutatzeke, egiten gabiltzan guztia gardentasunez eta maitasunez egiten gabiltza eta", esan dute.

Bestalde, Axpeko etxeko atea zabalik daudela jakinarazi diete herritarrei, eta deia egin dute norbaitek kalean dagoen migratzaileerik ikusten badu Harrerara bideratzeko.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bariku arratsaldean elkarretaratzea egin zuten Elorrion, 'Osasunarekin ez da jolasten' lelopean. 200 bat lagun batu ziren bertan eta deitzaileek "balorazio positiboa" egin dute.

Argi Gorriak eta 'Elorrion Pediatriaren Defentsan Dauden Amak taldeek deituta egin zuten mobilizazioa. "Osasungintza publikoa gura dugu eta behar dugu; horregaitik, bere defentsan mobilizatzen jarraitzeko deia egiten dugu. Kalitatezko Osakidetza aldarrikatu behar dugu", adierazi zuten mobilizazioan.

## Elkarretaratze jendetsua Elorrion, osasun publiko duin baten alde

200 bat lagun batu ziren mobilizazioan. Antolatzaileek mobilizazioaren "balorazio positiboa" egin zuten

Besteak beste, neurri hauek eskatu zituzten: lehen mailako arretaren egoera larria eta ospitaletako arretaren gainkarga amaitzea, lehenengo egunetik pediatra eta familia medikuen absentsia guztiak ordezkatzeko, ginekologia zerbitzua herrian iza-

tea, proba diagnostikoetan dagoen atzerapena amaitzea, pediatriaren edo medikuaren arreta azkarra bermatzea, gaixo kritikoen zatian ambulanzia medikalizatua izatea, plantillak berehala indartzea eta Osakidetza aurrekontua handitzea.



Joan zen egunean Elorrion egindako mobilizazioa.

## San Blasetan postua ipintzeko izen-ematea, hilaren 30era arte

2023an San Blas azoka formatu tradizionalera bueltatuko da

### ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiño Udalak iragarri duenez, San Blas azokak formatu tradizionala berreskuratuko du 2023an. "San Blas azoka bere osotasunean berreskuratuko dugu 2023an, mugak atzean utzita, lehen sektoreko festa nagusia ospatzeko. Hori guzti hori betiko

kultur programazioagaz", azaldu du Mikel Garaizabal alkateak.

Bestalde, zabalik dago izen-emate epea azokako postuetan parte hartzeko. Abadiño Udaletik jakinarazi dutenez, izen-ematea udalaren webgunearen bitartez egin daiteke, abenduaren 30era bitartean.



2022ko San Blas azokako argazkia.

# “Arreta eta mimo guztia ipintzen dugu uzkiko arazoak tratatu eta pazienteei behar dutena eskaintzeko”

Uzkiko arazoak zein zoru pelbikoari loturikoak erraz tratatzea. Posible ote? Durangoko Proktos Clinic-en arreta profesional eta gertukoa eskaintzen dute



Izaskun Badiola, Amaia Sanz eta Fernando Jiménez.

## OSASUNA • EKAITZ HERRERA

Izaskun Badiola Bergara (Ondarroa, 1982), Amaia Sainz Larrainzar (Mungia, 1981) eta Fernando Jiménez Escovar (Kolonbia, 1970) kirurgian adituak dira. Orain urtebete pasatxo proiektu berri bat hasi zuten Durangon: Proktos Clinic, uzki eta ondesteko patologiak tratatzeko klinika. Uzkiko fistulak, azkurak, minak, odol-jarioak zein hemorroideak aztertzen dituzte. Pazienteak patxadaz artatzen dituzte kontsultan, lasaitasunez, etxean bezala. Mikeldi kaleko 13. zenbakian daukate kontsulta, MAM ginekologia zentroan. Informazio gehiagorako, [info@proktoklinika.eus](mailto:info@proktoklinika.eus).

**Zein da Proktos Clinic-en eskaintzen duzuen zerbitzua?**

**Izaskun Badiola:** Kirurgia orokorrean zentratu barik, kirurgia zehatz batean esku hartzen dugu: proktologian eta zoru pelbikoko arazoe-

**“Liburua Zornotzako Aierdi eta Bilboko Anti liburudendetan dago salgai; bestela niri eskatu”**

tan. Uzkia leku delikatua da anatomikoki, baina guk arreta guztia ipintzen dugu bertako arazoak konpontzeko. Hona etortzeak lotsa

modukoa eman diezaioke bati baino gehiagori, baina erakutsi gura duguna da, belarriko minagaitik otorrinoarenera zoazen bezala, gugana ere etorri behar direla herritarrek. Proktologia normalizatu beharreko zerbait da, kontuan hartuta arazo horiek guztiak tratatzeko profesionalak ere bagaudela. Ipini diezaiegun izen-abizenak proktologiari loturiko arazoei. Zeintzuk dira Proktos Clinic-en tratatzen dituzuen ondoezak?

**I.B.:** Jasotzen ditugun kontsultarik gehienak uzkiko minei, azkurei eta odol-jarioei loturikoak dira. Askok uste dute da horren atzean hemorroideak daudela. Hori bada aukera bat, baina beste hainbat arazo ere egon daiteke horien

atzean. Batetik, fisurak, zauri txikiak izan daitezkeenak. Eta fistulak ere bai, azaletik barrura doazenak. Horrez gainera, kasurik zorigaitzokoenetan, minbizi kasuak ere badaude. Inportantea da

**“Pazienteak urduri datoz, ipurdiak lotsa hori sortzen duelako, baina gero ikusten dute dena oso errez doala”**

gurekin hartu-emanetan ipintzea, kasuak deskartatu edo tratamendua ipini behar bada, beste nonbaitera bideratzeko.

**Baduzue errezeta horiek guztiak tratatzeko: pazienteak mimoz artatzen dituzue.**

**Amaia Sainz:** Bai, pazienteak patxada osoz sentitu daitezke gurekin. Dena oso erraz egiten dugu, mimo handiz. Pazienteak urduri datoz, uzkiak, ipurdiak lotsa hori sortzen duelako. Eta etortzea kosta egiten zaien arren, gero ikusten dute dena oso erraz doala. Azken finean, etxean bezala sentitzea da kontua.

**I.B.:** Hemen asko lasaitzen zara. Izan ere, hau ez da hamar minutuko kontsulta bat. Arreta pertsonala da eskaintzen duguna, gertukoa. Pazientearekin konexio bat lortzen da hemen.

**Zein da Proktos Clinic-era datorren paziente mota? Badago profil jakinik?**

**I.B.:** Uzkia denok daukagunez gero, denok izan dezakegu arazoren bat. Haurdun daudenek, zoru pelbikoarekin kezka bat dutenek, horiek beharbada badute hona etortzeko kontzientzia gehiago. Baina hemen denerik dago.

**A.S.:** Askotariko pazienteak ditugu. Gaztaroan, adibidez, fisurak nahiko ohikoak dira. Azkurak ere bai. Hemorroideak adin guztietan izaten dira, eta helduen artean ere badira inkontinentzia arazoak. Hartu-eman sexual analak dituzten herritarrek ere askoz kontzientziatuago daude. Kasu horietan eta haurdunaldietan jarraipen bat egitea beharrezkoa da. Azken finean, baina, edonork izan dezake gugana etortzeko aukera.

**Zoru pelbikoari loturiko arazoak ere tratatzen dituzue.**

**I.B.:** Zoru pelbikoari loturiko arazoak ohikoagoak dira emakumeengan. Menopausian sarturikoan eta erditu eta gero arazoak egon daitezke. Guk arazo digestiboari erreparatzen diegu gehienbat. Bizi kalitatea asko hobetzen laguntzen dugu.

**Zalantzi dagoenarentzako mezua: zergaitik joan behar dugu Proktos Clinic-era?**

**A.S.:** Gertukoak eta profesionalak garelako, etxeok. Kariño handiz artatzen ditugu gaixoak.

**I.B.:** Nork ez du inoiz uzkiko arazoren bat izan? Etorri lasai, kontsultatu, normaltasun osoz. Hemen oso eroso egongo zarete. Hona urduri datorrena oso lasai irteten da gero.

# Mirugain mendi taldeak Arangion esango dio agur urteari bere 50. urteurrenean

Tradizioari jarraituta, xanpaina zabaldu eta 'Agur, urtezahar' kantatuko dute Guraso Elkarteagaz batera antolaturiko ekimenean

**OTXANDIO • J.D.**

Aurtengoa urte berezia izan da Mirugain mendi taldearentzat. Urte osoan zehar hainbat ekintza egin dute taldea sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko. Orain, tradizioari eutsita, Arangio inguruko tontor batetik agurtuko dute urtea, Guraso Elkarteagaz batera antolaturiko ekimen batean.

Gabon zahar egunean joango dira bertara. Autobus geltokian elkartuko dira, 09:30ean. Arangion, ohiko buzoi bat barik metalezko txondor bat dago, bere sasoiari otxandiar batek egindakoa. Han inguruan batu eta Mirugainen aurtengo egutegia erre eta berria banatuko dute. Ondoren, 'Agur, urtezahar' abestia kantatuko dute. Otxandioko kanta bat da. Emilio Donadok liburu batean batu zituen Otxandioko, Legutioko eta Ubideko kanta, eta han jasota dago abesti hori.

Ondoren, xanpaina eta turroia egongo da bertaratzen direnentzat, eta guraso elkarteak

ogitartekoak banatuko ditu. Mirugainek ekintza asko antolatu du urtean zehar: erakusketak, bazkari herrikoia... Horrez gainera, jaietako txupinazoa bota zuten Oihandi abesbatzagaz

**"Oso pozik gaude, gura genuen moduan irten du denak. Gainera, jende berria gogotsu sartu da"**

batera. "Oso pozik gaude, gura genuen moduan irten du denak. Gainera, jende berria gogotsu eta gauzak egiteko irrikagaz sartu da", adierazi du Mirugaineko Tomas Agirrek.



Otxandiarrak Arangio inguruan Gabonzahar egun batean.

## Otxandioko udal bandak kontzertua emango du gaur arratsaldean

**OTXANDIO • J.D.**

Gabon egunak ekintzaz beterik datoz Otxandiora. Esaterako, gaur arratsaldean Otxandioko udal bandak kontzertua emango du. Emanaldia 20:00etan hasiko da, Santa Marina elizan. Otxandioko udal bandak tradizio luzea du herrian. Gabon inguruan eta Santamaña egunean ez ezik, besteak beste San Martin egunean ere zuzeneko

**Udal bandaren emanaldia 20:00etan izango da, Otxandioko Santa Marina elizan**

musika egiten dute. Herriari egiten dioten ekarpenagaitik, 2018an jaietako txupinazoa bota zuten.

Bestalde, zapatu arratsaldean ondoetorria egingo diote Olenzerori, plazan. Ardo beroa eta gatzaina erreka egongo dira bertaratzen direnentzat.

## 50 mañariar auzorik auzo ibili dira Gabonetako abestiak kantatzen

Tradizioari eutsiz, mañariarrek Gabon kantekin girotu zituzten herriko auzoak joan zen zapatuko ekimenean



Mañariarrak baserri baten aurrean kantatzen, joan zen zapatuan.

**MAÑARIA • J.D.**

Andra Mari elkarteak guraso taldeak antolaturiko ekimenean, 50 bat mañariarrek irten zuten Gabon zahar abestiak kantatzera joan zen asteburuan. Egun osoko ekimena izan zen. Goizean auzorik auzo eta arratsaldean herrigunetik ibili ziren. Eguna txokolatada batez errematatu zuten.

**Arratsaldean herrigunetik ibili ziren, eta txokolatada egin zuten bertaratutakoekin**

**San Txibiri lasterketa**

Gabonetan zehar beste hainbat ekimen ere egongo dira Mañarian. Esaterako, abenduaren 31n San Txibiri lasterketa egingo dute. 10:30ean hasiko da, 8 kilometro ditu eta korrika nahiz oinez egin daiteke. Izen-ematea aurretik eta egunean bertan egin daiteke.

## Elordik Mallabian jokatu binakako partidu bat, Gabon zaharretan

**MALLABIA • J.D.**

Mallabian profesionalek pilotariak jaialdi bat ikusteko aukera egongo da abenduaren 31n. Aitor Elordi etxeko pilotaria izango da protagonistetarikoa. Jose Javier Zabaletak eta biek Eric Jaka eta Aitor Aranguren izango dituzte kontrario. Oraingoan, sekulako txapelketa osatzen dabilza Elordi eta Zabaleta. Jokaturiko lau partiduak irabazi dituzte eta lider daude sailkapenean.

**Orain arte jokaturiko lau partiduak irabazi dituzte Elordik eta Zabaletak, eta lider daude**

Jaialdiko beste partiduan, Aimar Morgaetxebarriak eta Joanes Bakaikoak Javier Zabalaren eta Andoni Gaskueren aurka jokatu dute. Bakaikoa eta Morgaetxebarria ere bikain dabilza.

## Olenzerok eta Mari Domingik opariak eta gozokiak banatuko dituzte Izurtzan

**IZURTZA • J.D.**

Urteroko ohiturari eutsita, Olenzerok eta Mari Domingik geldialdia egingo dute Izurtzan, zapatuan. 18:00etan pilotalekuan izango dira eta bertan opariak eta gozokiak banatuko dizkiete Izurtzako

**Olenzero eta Mari Domingi zapatuan, 18:00etan, egongo dira pilotalekuan opariekin**

umeei. Opari bakoitzak ume baten izena izango du eta banan-banan joan dira Olenzerorengana eta Mari Domingirengana opariak eta gozoki poltsak jasotzera.

Gabonen harira, beste ekintza bat ere egingo dute Izurtzan. Abenduaren 31n, 18:00etan, presoak Euskal Herriaratzaren aldeko elkarretaratzea egingo dute plazan.







**Vs**



**Real Madrid**

# Athleticen eta Real Madrilen arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan



Athleticen eta Osasunaren  
arteko partidarako sarreren  
irabazlea:  
**Maria Jesus Irazabal**

**Atheticek San Mamesen jokatu dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.**

**Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!**

**Zozketan parte hartzeko azken eguna: urtarrilaren 17a.**

**Okm:**  
*batzen gaituen  
distantzia*

*Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!*



**anboto  
kide**

# Iurretako La Bodeguilla taberna, komunitate argentinarren topaleku Munduko Futbol Kopan

"Munduko Kopa Argentinak irabaztea itzela da, zoramena, zerbait oso hunkigarria", dio Darío Suffardi iurretarrak

**IURRETA • EKAITZ HERRERA**

Iurretako La Bodeguilla taberna komunitate argentinarren tenplu izan da Munduko Futbol Kopak iraun duen bitartean. Udalerriko eta Durangoko argentinarrek bertan batu dira gizonen futbol selekzioaren garaipenak ospatzeko. Tartean Darío Suffardi iurretarra egon

da. "Munduko Kopako lehenengo partidua, Saudi Arabiaren kontrakoa, ez genuen La Bodeguillan ikusi. Eta hara! Galdu egin genuen. Horregaitik, hortik aurrerako partidu guztiak La Bodeguillan ikustea erabaki genuen. Mexikoren, Poloniaren, Australiaren, Herbehereen eta Kroaziaren kontrakoak, eta

Frantziaren aurkako finala, jakina. Eta guztiak irabazi ditugu! Beharbada sineskeria modura erabili dugu La Bodeguilla, baina horrela da. Oso eskertuta gaude bertako kideekin", azaldu du. Bere esanetan, Argentinak Munduko Kopa irabaztea "izugarria" da, "zoramena, zerbait oso-oso hunkigarria". Joan zen domekan, danbor handi bat eta turuta bat lagun, kantuan ibili ziren giroa berotzen. "Zarata handia egin genuen. Uruguaitarrak ere izan ziren gugaz. Anaitasun handia daukagu", zehaztu du Suffardik. Partiduan zehar, baina, emozio gorabeheratsuak bizi izan zituztela ere aitortu du: "Irribarrea, negarra, urduritasuna. Momentu batzuetan gogorra ere izan zen. Baina ez genuen dudarik egin. Amaierara arte animatu genuen selekzioa", esan du.



Domekan egundoko ospakizuna izan zuten La Bodeguillan.

## Garaitarrek Arakaldora igota eta mokadutxo bat janda agurtuko dute urtea

Trumoitte elkarteak antolatu du txangoa. Abenduaren 31n plazan batuko dira, 10:00etan, Arakaldora igotzeko



2019ko Gabon zahar egunean egindako txangoaren amaiera. **JUAN MARI TOTORIKA.**

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Garaitarrek Arakaldo mendira igota amaituko dute urtea. Trumoitte elkarteak kideek txangoa antolatu dute abenduaren 31rako. Ibilaldia 10:00etan irtengo da, plazatik, eta 11:00etarako tontorrean egotea gura dute. Bueltan, 12:30 aldera, kopautxoa egingo dute plazan. Trumoitteko kideek aurreratu dutenez, parrilla bat ipini eta txerriak erreko dute bertan.

**Olentzero eta Mari Domingi**

Abenduaren 24an, 10:00etan hasita, Olentzero eta Mari Domingi auzorik auzo ibiliko dira. Umeak zein gurasoak plazan batuko dira. Handik, umeek pertsonaia biei autobus txiki batean lagunduko diete. Ibilbidean parte hartu dutenek bazkaria egingo dute, 14:00etan, Otea Loran elkartearen. Arratsaldean, 16:00etan, kalejira egingo dute San Migel auzoan. Olentzerorentzako eta Mari Domingirentzako gutunak udaletxe azpian utzi daitezke, bertan ipinitako postontzian.

## Iurretan lankidetzaz hitzarmena lotu dute JAED elkarteagaz

Udalak 9.000 euro ipiniko ditu premiadunei laguntzeko

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Iurretako Udalak eta JAED elkarteak lankidetzaz hitzarmena sinatu dute pertsona eta familiarik ahulenei laguntzeko. Udalak 9.000 euro ipiniko ditu herrian "premia larrian" dauden pertsonen arreta emateko. Iurretako alkatearen berbetan, urte asko daramatzate elkarlanean JAEDegaz, "inor atzean ez uzteko". Horretarako, gizarte laguntzekin batera JAEDeko boluntarioen

ekarpena oso garrantzitsua dela dio. "Mirestekoa da egiten duten lan desinteresatua", gaineratu du. JAED elkarteak egoera ekonomiko eta sozial kritikoa dauden Durangoko eta Iurretako pertsona eta familiak artatzen ditu 1963tik, gogoratu duten moduan.

Bestalde, Anderebide emakume elkarteak antolatutako azoka solidarioan bildutako dirua ere JAED elkartearentzat izan da.



Irudian, Estibaliz Zurikarai JAEDeko presidentea eta Iñaki Totorikaguena alkatea.

## Iurretan Gabonetako kanpaina hasi dute, herrian erosi dadin

50 euroko gastua eginda termo botila emango dute opari

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Opariak Iurretan ere! lelopean herriko merkataritzari eta ostalaritzari zuzendutako gabonetako kanpaina jarri du martxan Iurretako Udalak, Dendak Bai Durangaldeko merkataritza eta ostalaritza elkartearen laguntzagaz. Herriko merkataritzan eta ostalaritzan egiten diren erosketak bultzatzea

du helburu, eta urtarrilaren 15era arte iraungo du.

Botila termoa lortu daiteke 50 euroko gutxienezko gastua eginda, Herritarren Arreta Zerbitzurako bulegoan. Gainera, Crussis Ebike E-Atland 5.7 bizikleta elektrikoa zotz egingo da. Oinarriak [www.iurreta.eus](http://www.iurreta.eus) edo [www.dendakbai.eus](http://www.dendakbai.eus) web orrietan ikusi daitezke.



Dendak Bai-ko Alex Palacios eta Undarri Bike-eko Aitor Undagoitia Iurretako alkateagaz.

## Zaldibartarrek hamabost proposamenen artean aukeratu beharko dute

Zaldibarko aurrekontu parte hartzaileen bigarren fasera hamabost proiektu igaro dira; abenduaren 20an egin zuten aukeraketa, udaletxean egingako batzarrean

### ZALDIBAR • A. M.

Zaldibartarrek hamabost proposamenen artean hautatzeko aukera izan dute aurrekontu parte hartzaileen prozesuan. Guztira, Zaldibarko Udalak 15.000 euro ipiniko ditu proiektu horietarako 2023ko aurrekontuetan. Besteak beste, plastikozko tapoien edukiontzi bat instalatzea, kiroldegiko aldagelak hobetzea eta futbol zelai inguruko aparkalekua hobetzea eskatu dute zaldibartarrek.

2022an zehar, aurreko parte hartze prozesuko hainbat proiektu gauzatu da; besteak beste, ekortzeko makina kiroldegirako, katuak babesteko CES kanpaina eta bizikletak garbitzeko gunea.



laz bizikletak garbitzeko gunea egin zuten.

## 50eko eta 70eko industrializazioek Berrizko herrira ekarritako eraldaketa aztertu dute

'Berriz, metalez eta ekinez hazia' dokumentala eta liburuxka kaleratu dituzte; industrializazioaren ondorioak aztertu dituzte


### BERRIZ • ARITZ MALDONADO

1950etik 1970era bitartean Berrizen izandako aldaketak aztertu eta dokumental labur batean eta liburuxka batean publikatu dituzte ondorioak. *Berriz metalez eta ekinez hazia* izendatu dute proiektua. Garai hartako argazkiak eta prozesu hori bizi izan zuten berriztarren lekukotzak batu

dituzte, besteak beste. "Bertako bizilagunen testigantzak batzea izan da gure lana, batez ere. Euren egindakoa ikusi gura izan dugu, ikasteko", azaldu du Akaitze Kamiruaga Labayru fundazioko kideak; euren koordinatu dute lana. Orlan Isoird alkateak urte horietan gertaturiko aldaketak ezagutaraztearen garrantzia

ere nabarmendu du. "Aldaketa asko geratu ziren; besteak beste, biztanleria laukoiztu zen. 1.000 biztanle izatetik 4.000 biztanleko herria izatera igaro zen Berriz sasoi hartan. Horregaitik da garrantzitsua testigantzak jasotzea, elkarregaz eraiki dugun herria delako", gaineratu zuen.

Labayruk bost ataletan banatu du kontakizuna. Testuingurua aztertu dute lehenengo, industrializazioa bera aztertze gero. "Nekazaritza-herri izatetik herri industrializatua izatera igaro zen Berriz, eta aldaketa Olakueta inguruan igarri zen, batez ere". Emakumeak industrian izandako presentzia ere aztertu dute, eta baita industrializazioak Berrizen garapenean izandako eragina ere. Lana borobiltzeko, herriko kultura izandako eragina ikertu dute.



Berrizko Kultur Etxean egin zuten aurkezpena.

anboto  
kide

Anbotokideen  
txokoa

## URTARRILEKO ZOKKETAK

Laster iragarriko ditugu.

## IRABAZLEAK

**BBK Karpin Faunarako** bi sarrera bikoitz:  
Amalur Macho Olivares  
Mertxe Uriarte

**Gernikako Jai Alai Jaialdirako** bi sarrera bikoitz:  
Leire Bereziartua Gonzalez  
Olatz Lasa Elgezua

San Agustineko **Maluta zirku galarako** sarrera bikoitza:  
Iker Berra Dorronsoro

Platerueneko **Urteko Azken Bertso Saiorako** bi sarrera bikoitz:  
Libe Mimenza Castillo  
Eneritz Urrutibeaskoa Elordi

**Alcamporen eskutik otzara eder bat:**  
Begoña Azkoaga Igarza

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zokketetan!



# DRTk 1.567 euro atera ditu Durango Movember kanpainagaz

Movember mugimenduagaz bat eginda, txokolate tabletak saltzen jarraitzen dabilta



Txokolate tabletak salgai ipiniko zituztela iragartzeko eman zuten prentsaureroko irudia.

**DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Durango Rugby Taldearen ekimenez baturiko dirua Movember GKE-ra bideratuko dute, prostata eta barrabletako minbizia prebenitzeko eta osasun mentala eta jarduera fisikoa bultzatzeko programak finantzatzeko.

DRTko kideak esker oneko agertu dira kanpainagaz bat egin duten denekin. "Jokalari, zale eta Durangoko gizarte guztiari eskerrak ematen dizkiogu, bibotea utzita, webgunea bisitatuta, diru donazioak eginda zein MOV-DRTko txokolatea erosita kanpaina hau aurrera ateratzeagaitik", adierazi dute ohar batean.

Gabonak amaitu artean Rugby Tabernan eta Saltsanen txokolatea saltzen jarraituko dutela iragarri dute.

## Politikan

Garazi Errasti Silloniz  
EH-Bildu



### 2023ra begira

2022. urtea amaitzean dago, astebete besterik ez zaigu gertatzen 2023. urtean bete-betean sartzeko; eta oraingo honetan orain arte egindako bidea aztertzea gustatuko litzaidake. 2019. urteko ekainean Durango Udalean sartu ginen, hau da, udaleko zerbitzuen kudeaketa hasi ginen. Lehenengo pausok ez ziren batere errazak izan. Kudeaketa nola egin ikasi, udaleko atak herritarrei zabaldu, azken finean, motorra piztu eta martxan jarri.

Baina makinaria guztia piztuta, aurreko 40 urteetako kudeaketa ezaren ondorioak agertzen hasi zitzaizkigun. San Agustineko ospitalea jaus-tear zegoela konturatu ginen, herriko zubiek inoiz mantentze-lanik izan ez zutela ikusi genuen, Pinondo etxea (Durangoko elkarte askoren lan edota elkartzeko lekua) eta Tabirako aldagelak itxi behar genituela esan ziguten (erabiltzen jarraituz gero erortzeko arriskua baitzegoen); oro har, Durango hankaz gora zegoela konturatu ginen.

Hori horrela, benetako kudeaketaekin hasi ginen. PERI Ferrocarril delakoaren erreferenduma eta aurreakordioa, Correos eraikuntzan Kultur Etxea egiteko diru kopurua eskuratzea, Uribarri 23 eraikuntzaren eraistea jabeek egitearen lorpena, haur ludoteka, gaztelekua, Aramotz Berritu proiektua, atletismo pista eta Ezkurdiko frontoia eraberritzea eta beste hainbat ekintza.

Abenduaren 23a denez, nik ere Olentzerori eta Mari Domingiri eskaera egin nahi diet: EH Bilduko kide bezala gure kudeaketa eta lan norabideaz aurrera jarraitzea, erakutsi baitugu Durango hobeto bat lortzeko lanean gabiltzala.

## Durangaldea asteen

### Elorrioren ikasketa gela bat egingo dute Goietako etxabe bat egokituta

**ELORRIO** Gazteek parte hartze prozesuan adierazitako beharri-zanetatik hasita, ikasketa gela bat egingo dute Elorrioren, Goietako kaleko 42. etxabearen. Ikasketarako egokia eta atsegina izateko diseinatuko da gela eta ordutegi zabala izango du. Lanek 217.029 euroko aurrekontua izango dute.



### 'Harria eta taladrina' aldizkaria kalean da eta Elorrioko etxeetan banatuko dute

**ELORRIO** Harria eta taladrina aldizkariaren bigarren aleak Elorrioko trenbidearen jatorria du ardatz. Kontakizuna egiteko, Juanjo Olai-zola Elordiren eta Igor Basterretxea Kerexetaren artikulua daude aldizkarian. Udaleko ordezkariak esan dute oroitzapenez eta bitxikeriaz beteriko aldizkaria dela.



### Uztaireren kafe solidarioan 505 euro batu dituzte Leukodistrofien Aurkako

**DURANGO** Uztai taldeko gaztetxoek askotariko gimnastika erritmiko saioak egin zituzten zapatuan, Txikigym jaialdiaren barruan. Ekitaldi horren barruan, kirola elkartasunagaz uztartu zuten Uztaireren kafeak. Kafea eta bizkotxoak saldu eta 505 euro lortu zituzten. Diru hori Leukodistrofien Aurkako Elkartearentzat izango da.

"Eskerririk asko bizkotxoak prestatu zenuten guztioi, Cafés Baqueri kafea emateagaitik, kafea eta bizkotxoak erosi zenutenoi eta ekitaldia ospatzeko behar zen guztia muntatzen eta desmuntatzen lagundu zenutenoi", adierazi dute ohar batean.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

## "Urte berri? Zaharrak berri!"

MIRIAM MENDOZA

HAURRENTZAKO IPUIN KONTALARIA

2023ko urtarrilaren Sean

ORDUA  
11:00 > 3-5 urte bitartekoak lagundurik  
12:00 > 6 urtetik gorakoak

Iurretako Herri Bibliotekan



Iurreta  
Elezateko Udala  
HERRI BIBLIOTEKA

hitz

artekalea 23, durango

946 810 776

info@hitzliburudenda.com

liburudenda



ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



## Gabonak 2022

### ABADIÑO

#### Abenduak 23, barikua

**17:00 Gabonetako haurrentzako apaingarri-tailerra.** Traña plazan.

#### Abenduak 24, zapatua

**11:30 Gabonetako lasterketa** (0-10 urte). Muntzaratz.

**11:45 Gabonetako lasterketa** (11-15 urte). Muntzaratz.

**12:00 Gabonetako lasterketa** (16-100 urte). Muntzaratz.

**17:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira.** Traña-Matienan.

**18:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira.** Txanpota. (Ibilbidea: herri osoa, Traña-Matienan hasi eta Txanpota plazan amaitu).

**17:30 'Adarrak' ikuskizuna.** Zirkozaurre. Muntzaratz.

#### Abenduak 26, astelehena

**19:30 Concertante a Quatro: organoa lau eskutara.** Atsuko Katanogaz eta Pablo Marquezegaz. San Trokaz eliza

#### Abenduak 27/28/29

**11:30 - 13:30 / 16:00-20:00 Umeen Gabonetako Jolaslekua.**

Probalekuan (0-9 urte) eta Traña-Matienako frontoian (10 urtetik aurrera).

#### Abenduak 30, barikua

**19:00 'Irabazi' Jon Plazaola.** Errota Kultur Etxea.

#### Urtarrilak 2, astelehena

**17:00 'Pintto Pintto' Anita Maravillas.** Errota Kultur Etxea.

#### Urtarrilak 3, martitzena

**19:00 XVII. Gospel Zikloa: 'The Spolem Girls'.** Errota Kultur Etxea

#### Urtarrilak 5, eguena

**18:00 - 20:00 Erregeen kabalkada.**

(Herri osoan, Muntzaratzen hasi eta Traña-Matienan amaitu)

### ATXONDO

#### Abenduak 27, martitzena

**17:30 Ipuin kontaketa.** Nerea Ariznabarreta. Liburutegian.

#### Abenduak 31, zapatua

**11:30 - 15:00 Puzgarriak,** Apatako frontoian.

### BERRIZ

#### Abenduak 24, zapatua

**09:30 Mari Domingiren eta Olentzeroren irteera auzoetara.**

Olakueta plazatik

**17:30 Mari Domingiren eta Olentzeroren irteera probalekura.** Udaletxetik.

#### Abenduak 27, astelehena

**19:00 Kontzertua.** San Juan Ebanjelariaren elizan.

#### Abenduak 28, martitzena

**19:00 "Kobre3" zirkua.** Kultur etxean.

#### Urtarrilak 2, astelehena

**Goizean. Gabonetako eskulanak umeentzat.**

**Arratsaldean. "Ihes gela beldurgarria"** (12 urtetik gorakoentzako)

#### Urtarrilak 4, eguaztena

**12:00-13:30 Puzgarriak.** Olakueta frontoian. **16:00-19:00**

**Puzgarriak.** Olakueta frontoian.

#### Urtarrilak 5, eguena

**17:30 Erregeen kabalkada, eta ostean txokolate jana.**

Komentutik Olakueta plazara.

### ELORRIO

#### Abenduak 23, barikua

**9:30 Herri eskolako umeen Santamas azoka,** bertsoak eta Gabon kantak. Herriko Plazan.

**10:30 Artisautza azoka Eixuk antolatuta.** Plazako frontoian.

**17:30 'Go!azen 9.0' gaztetxoentzako kontzertua.** Arriolan.

**19:30 'Go!azen 9.0' gaztetxoentzako kontzertua.** Arriolan.

#### Abenduak 24, zapatua

**18:00 Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria** Besaide Dantza Taldeagaz.

#### Abenduak 25, domeka

**11:30 Meza,** Basilikako koroagaz.

#### Abenduak 27/28/29 eta Urtarrilak 2/3/4

**11:30-13:30 / 17:00-20:00 Haur parkea.** Hilario Azkarate frontoian.

#### Abenduak 30, barikua

**19:30 Gabon kantak,** Bilboko Rossini Koral Elkartearen eskutik.

#### Abenduak 31, zapatua

**9:00 Mendi irteera.** Erdellak antolatuta.

#### Abendu osoan

**'Begiradak' argazki erakusketa kolektiboa.** Elorrioko Argazki Taldea. Iturri Kultur Etxean.

#### Urtarrilak 1, domeka

**9:00 Mendi irteera Erdellara.**

#### Urtarrilak 5, eguena

**18:30 Errege Magoen etorrera.** Elizpea

### GARAI

#### Abenduak 16, barikua

**18:30 'Gabonetako herri ohiturak' berbaldia Felix Mugurtzaren eskutik.** Udaletxean.

#### Abenduak 17, zapatua

**18:30 'Euskal kantuak eguberri atarian'** musika emanaldia Elizabarrin.

#### Abenduak 18, domeka

**11:00 Baserriko produktuen azoka.** Plazan.

#### Abenduak 20, martitzena

**18:30 Garaiko toponimia berrituaren maparen aurkezpena.** Udaletxean.

### DURANGO

#### Abenduak 23, barikua

**20:15 Organo eta txistu kontzertua** Arandoño kultur elkar-tearen eskutik. San Frantzisko elizan.

**22:00 Alerta taldearen kontzertua** Plateruenean.

#### Abenduaren 23tik urtarrilaren 8ra

**Izotz pista** Landako Gunean.

#### Abenduak 24, zapatua

**18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira** Fray Juan Zumarraga institututik hasita. Ibilbidea: Institutua, Ermodo, Zumalakarregi eta Ezkurdiko kioskoa. Euria bada, Landako Gunean.

#### Abenduak 26, astelehena

**16:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** 'Urteak bete, abenturak bizi!' ikuskizuna. Landako Gunean

**19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots.** Landako Gunean. Sarrerak Arte eta Historia Museoa, Intxaurrondoko gazte eta kultur gunean eta Kutxabanken.

#### Abenduak 27, martitzena

**16:30 Jolas eguna Tabira parkean.** Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**18:30 Perculights kaleko musika animazioa** kaleetan zehar. Antolatzailea: Dendak Bai.

#### Abenduaren 27tik 29ra

**11:30 - 13:30 eta 16:00 - 20:00 Txu Txu Trena** Elkartegiaren aurrean. Antolatzaileak: Dendak Bai.

#### Abenduak 28,29, 30 eta Urtarrilak 2, 3, 4

**11:00-14:00 eta 16:00-20:00 Umeen Gabonetako Parkea.** Landako Gunean.

#### Abenduak 30, barikua

**16:30-19:30 Jolas eguna** Muruetatorren. Euria bada, Landako Eskolan.

**18:00 Dantzaro: Patxi eta Konpainia.** Plateruenean.

**20:00 Organo eta txistu kontzertua** Aitor Olea eta Silbobe-rri-gaz. Andra Mariko basilikan. Antolatzailea: Arandoño kultur elkar-tea.

#### Urtarrilak 5, eguena

**18:45 Errege Magoen kabalkadaren hasiera** Fray Juan Zumarra institututik. 19:15ean Ezkurdin; 19:35 Udal plazan; 20:15 Santa Anan; 21:15 San Fauston.

#### Urtarrilak 6, barikua

**18:00 JAED elkartearen zozketa benefikoa** Kalebarrian, elkartearen lokalean.

#### Urtarrilak 7, zapatua

**11:00-13:00 Jolas eguna** San Fausto auzoan. Euria bada, San Faustoko kiroldegian.

**22:00 Astoturfer taldearen kontzertua.** Plateruenean.

#### Urtarrilak 8, domeka

**19:00 Bogoroditsie abesbatzaren kontzertua.** Gabonetako kontzertua. San Frantzisko elizan.

#### OTXANDIO

#### Abenduak 23, barikua

**20:00 Gabonetako kontzertua,** Santa Marina elizan. Otxandio Udal Bandaren kontzertua.

#### Abenduak 24, zapatua

**18:30 Olientzerori ongi etorria,** plazan. Ostean, ardo beroa eta gaztain erreak Pasealeku jubilatuta elkartearen eskutik.

#### Abenduak 31, zapatua

**09:30 Arangixora irteera,** autobus geltokitik. Mirugainek eta Mainondo guraso elkarteak antolatuta.

**18:00 Ume, gazte eta helduen herri krosa,** plazan. Gazte Asanbladak eta MKEak antolatuta.

**20:00 Presoen aldeko elkarretaratzea,** plazan.

#### Urtarrilak 3, martitzena

**17:00 'Gezur gehiegi' Txoborro magoaren magia saioa,** Mainondon. Mainondo guraso elkarteak antolatuta.

#### IURRETA

#### Abenduak 23, barikua

**Olientzerori gutunak.** Eskolako umeek euren gutunak ekarriko dituzte Ibarretxe kultur etxera. Bestalde, eskolekin hitzartutako magia eta txotxongilo saioak egongo dira.

**10:15 Txotxongiloak Rosa Maria Martinezen eskutik** 2-3 urteko umeentzat

**10:45 Txotxongiloak Rosa Maria Martinezen eskutik** 4-5 urteko umeentzat

**11:00 Tor Magoa,** 1., 2., 3. eta 4. mailako neska mutilen zuzenduta.

**10:00 Abendu koplak abestuko dira etxerik etxe** Aita San Migel plazatik irtenda.

**17:00 'Oihaneko tirabirak'** haurrentzako (3-5 urteko umeentzat) ipuin kontalaria: Ane Gebara. Ibarretxe kultur etxean. Bigarren saioa egongo da, 17:45ean (sei urtetik gorako umeentzat).

#### Abenduak 24, zapatua

**12:00 Olientzerori eta Mari Domingiri harrera.** Aita San Migel plazan. Ondoren, trikitilariak girotutako kalejira. Zatoz baserriarrez jantzita.

#### Abenduak 27, 28, 29

**11:30-13:30/16:00-20:00 Txu Txu tren.** Korreoseko geltokian.

#### Abenduak 27, 28, 29 eta 30

**17:00-20:00 Gabonetako parkea** (ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak), Kepa Arroitauregi frontoian.

#### Urtarrilak 1, domeka

**09:30 Urtebarri eguneko Gallandara igoera,** lurretako plazan taldean irteteko.

#### 11:00 Tontorrean

#### Urtarrilak 5, eguena

**11:00 'Urteberri! Zaharrak berri!' ipuin kontaketa** (3-5 urteko umeentzat), Miriam Mendoza ipuin kontalariaren eskutik, Ibarretxe kultur etxean. Bigarren saio bat egongo da, 12:00etan (sei urtetik gorakoentzat).

**17:30 Errege Magoen kabalkada, Askondon.** Harrera egin bitartean txokolatea eta elkartasun opila banatuko dituzte.

# Durangaldeko albisteak jaso gura dituzu?



**Bidali ALTA**  
**688 635 041**  
telefono zenbakira

**Batu Anbotoko**  
**Whatsapp taldera!**



**anboto**

## Gabonak 2022

### IZURTZA

Abenduak 24, zapatua

**18:00 Olentzerok opariak banatuko dizkie herriko umeei,** pilotalekuan.

### MALLABIA

Abenduak 24, zapatua

**18:30 Olentzero eta Mari Domingi,** plazan. Zaparrada Kultur Elkarrekin antolatuta.

Abenduak 29, eguena

**19:00 Skimetrajea: 2022 edizioko film labur sarituen hautaketa,** Kontzejuzarrear. Udalak antolatuta.

Abenduak 30, barikua

**10:30 Baserririk baserri gabon eskean.** Ibilbidea: Aitxu, Areitio, Osma, Zengotita eta Goita. Mendibil abesbatzak antolatuta.

**16:00 Tenis erakustaldia eskolan.** Mallabia Kirol Elkarrekin antolatuta.

**18:00 Bizkaiko eskuz banakako finalerdiak.** Herriko frontoian. Bizkaiko Eusko Pilota Federakuntza.

Abenduak 31, zapatua

**16:30 Pilota jaialdia** herriko frontoian.

Bakaikoa - Morgaetxebarria / Zabala - Gaskue (Promozioko Binakako Txapelketa)

Jaka - Aranguren / Elordi - Zabaleta (EPELen Binakako Txapelketa)

Urtarrilak 2 / 3

**11:30 - 13:30 / 16:30 - 19:30 Gabonetako haur parkea** herriko frontoian.

Urtarrilak 7, zapatua

**16:30 Petanka txapelketa** jubiletze ondoan. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkarrekin antolatuta.

Urtarrilak 8, domeka

**11:00 Multikirola eta txokolatada** eskolan. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkarrekin.

**16:00 Bideoa eta bingoa** Kontzejuzarrear. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkarrekin.

**18:00 Domino txapelketa** Kontzejuzarrear. (16 urtetik gorakoentzat). Mallabia Kirol Elkarrekin.

### MAÑARIA

Abenduak 24, zapatua

**Arratsaldean Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.** Andra Mari elkarrekin.

Abenduak 26, astelehena

**17:00-19:00 Belaze baserriko zapoaren eskutik,** gazta freskoa egiteko tailerra, herriko dendan. Adin guztietarako.

Abenduaren 26tik 30era

**10:00-13:00 Negulekuak.** 4-10 urte artekoentzat. Andra Mari elkarrekin.

Abenduaren 28, eguaztena

**17:00 Zinema** liburutegi zaharrear. Andra Mari Elkarrekin.

Abenduak 31, zapatua

**10:30 San Silbestre. 8 kilometro korrika edo oinez.** Izen-ematea egunean bertan ala [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com).

Urtarrilak 5

Arratsaldean, Hiru Errege Magoen etorrera.

### ZALDIBAR

Abenduak 24, zapatua

**12:00 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera.** Olazar kalean.

**12:30 Ongi etorri jaialdia.** Zaldia plazan.

Abenduak 26, astelehena

**16:30 'Olentzero kuttun' haur antzerkia** (3-5 urteko umeentzat). Liburutegi zaharrear.

**17:00 'Olentzero kuttun' haur antzerkia** (6-9 urteko umeentzat). Liburutegi zaharrear.

**18:00 Taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.** Eskolako pilotalekuan.

**18:30 'Eingo' taldeagaz kalejira.** Dr Aranzamendi kaletik hasita.

Abenduak 28, eguaztena

**12:00-14:00 'Gabonetako Haur Parkea'.** Eskolako kiroldegian.

**17:00-20:00 'Gabonetako Haur Parkea'.** Eskolako kiroldegian.

Abenduak 29, eguena

**12:00-14:00 'Gabonetako Haur Parkea'.** Eskolako kiroldegian.

**17:00-20:00 'Gabonetako Haur Parkea'.** Eskolako kiroldegian.

Abenduak 31, zapatua

**16:00 'II. Emakumeen Olazar pilota txapelketa: finala'.** Ondoren, XXIV Olazar pilota txapelketako finalak.

**17:00 'VIII. San Silbestre lasterketa'.** Irteera udaletxeko plazatik.

Urtarrilak 1, domeka

**10:30 'Igoera Santamarinazarrera'.**

Urtarrilak 5, eguena

**18:30 'Erregeen kabalkada'.** Haurreskolan hasita.

### ZORNOTZA

Abenduak 23, barikua

**20:00 Zubiatur Musika Eskolako kideen Gabonetako kontzertua.** Zornotza Aretoan. Sarrerak agortuta daude.

Abenduak 24, zapatua

**09:00 Belaxikietara igoera** Zelaieta parketik hasita. Antolatzailea: Extrem Zornotza.

**18:00 Olentzero.** Gudari Plaza - Herriko plaza. Antolatzailea: Udabarri.

Abenduaren 26tik 27ra, astelehena eta martitzena

**16:00 Gauero + Futbol 7 txapelketa.** 14 urtetik gorakoentzat. Larreako futbol zelaia

Abenduaren 26tik 30era

**11:30 - 13:30 eta 17:00 - 21:00 Gabonetako Haur Parkea.** Zelaieta zentroko frontoian.

**11:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Txu Txu Trena.** Gudari kaleko autobus geltokian.

**17:00 - 21:30 Gauero Gabonetan.** Gazteentzako gabonetako esparrua. 10 urtetik gora.

Abenduak 26, astelehena

**18:00 'Sentsazioak' magia ikuskizuna** Hodei magoaren eskutik. Zornotza Aretoan. 5 euro.

Abenduak 27, martitzena

**18:00 'Nijoyome' familientzako dantza** Nuria Perezen eskutik. Zornotza Aretoa. 5 euro.

Abenduak 28, eguaztena

**18:00 'Enperadorearen kondaira' familia antzerkia,** Patata Tropikalaren eskutik. Zornotza Aretoa. 5 euro.

Abenduak 29, eguena

**18:00 'Grand Mamut, Paleolitiko izakiak' familia antzerkia** Markeliñeren eskutik. Zornotza Aretoa. 5 euro.

Abenduak 30, barikua

**19:00 Disko festa DJ Pakoren eskutik.** Zelaieta zentroko frontoia.

Abenduak 31, zapatua

**10:00 Belaxikietara martxa** Zelaieta parketik hasita. Antolatzailea: Zornotza Mendi Taldea.

**16:30 San Silbestre lasterketa** Zelaieta parketik hasita. Antolatzailea: Herrenak triatloi kluba.

Urtarrilaren 2tik 5era

**17:00 - 21:30 Gauero Gabonetan.** Gazteentzako gabonetako esparrua. Zelaietako kontzertu gelan.

**17:00 - 20:00 Gabonetako eskulan tailerrak** Zelaietako ludotekan.

Urtarrilak 5, eguena

**18:00 Erregeen kabalkada** Gudari-Herriko plazan.

Urtarrilak 6, barikua

**22:00 Pilota Pro Fest** Zelaietako frontoian.

Urtarrilak 7, zapatua

**09:00 Hamabi orduko maratonia.** Zelaietako frontoian. Antolatzailea: Lagun Onak.





Andra Mariko elizpe erdian barik, alde batean ipini dute aurten JAEDen stand solidarioa.

## JAEDen stand solidariooko txartelen zozketa bide onetik doa; hilabeteen 32.000tik gora saldu dituzte, erdia baino gehiago

Salmentara ateratako 65.000 txarteletatik erdiak salduta zituzten astelehenerako; oraindino beste aste bi falta dira zozketa egin aurretik

### JAED • J.D.

JAED elkartereko kideak pozik daude euren stand solidarioa izaten ari den harreragaz. Txartelak ondo saltzen ari dira. Eskuragarri ipinitako 65.000 txarteletatik 32.000tik gora salduta zituzten astelehenerako. Iaz data hauetan 27.000 txartel inguru zituzten salduta, 5.000 gutxiago. "Oso pozik gaude. Aurten erraz saltzen gabilta txartelak; lehenengo egunetik bertatik, gainera", azaldu du JAEDeko Susana Lorenzok. Erritmo honetan, posible ikusten du dena saltzea. "Hori xe espero dugu behintzat", esan du.

Komenigarria da gogoratzea aurten zozketa, Errege Egunean barik, urtarrilaren 8an egingo dutela, egun bi geroago. Horren arrazoia honako hau da: udala Andra Mariko elizpea berriztatzen hasiko da laster eta JAEDekoek euren lokalean egingo dute zozketa, standean bertan barik. Behin horretara behartuta, oztopoa abagune bihurtzen ahalegindu dira. "Standa beste pare bat egunean zabalik mantentzeko aprobeztatu dugu", esan dute.

Stand solidarioa elkarterako dirua batzeko egiten duten ekintzarik handiena eta ezagunena da, baina ez bakarria. Besteak beste, sanfaustoetan jaietako zapiak ateratzen dituzte. Aurten 6.000 kaleratu eta denak saldu dituzte. Datorren urtera begira zapi gehiago ateratzea pentsatzen dabilta.

### 225 familiari laguntza

Ekimen hauetan guztietan baturiko dirua beharrezana duten familiei laguntzeko erabiltzen dute. Hile amaierara heltzeko arazoak dituzten 225 familiari

### Familiei emandako otzaretan, elikagaiez gainera garbiketa produktuak gehitu dituzte aurten

(554 pertsona) laguntzen diete. Azken urteetan "hazi" egin den kopurua da. Familia bakoitzari elikagaiekin batera otzara bat ematen diote hilean behin.

Aurten, nobedade lez, garbitasun produktuak ere gehitu dituzte otzarara: garbigailuko xaboa, hagineta pasta, komuneko papera eta bainurako gela.

Azken urteetan argindarraren prezioa hainbeste igota, geroago eta familia gehiago bizi da pobrezia energetikoan. JAEDek programa berezi bat martxan du familia horiei laguntzeko. 2020an, esaterako, 56 familiari lagundu zieten. "Lehen, neguan zehar ipintzen genuen martxan laguntza, sasoi horretan energia kontsumoak eta fakturak gora egiten dutelako, berogailuagaitik. Baina aurten urte osora zabaldu dugu, gutxi gorabehera. Ahalik eta gehienei laguntzen ahalegintzen gara", azaldu du Lorenzok.

Beste laguntza ildo bat alokairuekin laguntzera bideratzen dute. Iaz %50era arteko laguntza ematetik, kasu batzuetan %100koa ematera pasatu ziren eta aurten ildo beretik jarraitzen dute lanean. Kasu bakoitza aztertzen dute beste eragile batzuekin batera.

### Bazkidezeko deia

JAEDen bazkide kopuruak behera egin du azken urtean. Iaz 120 bat bazkide zituzten abenduan, eta aurten 101 dituzte. "Beste elkarte batzuetan ere igarri dute beherakada, ez gurean bakarrik. Gu oso esker oneko gaude Durangoko eta

Iurretako herritarrengandik nahiz udalengandik jasotzen dugun babesagaz eta laguntzagaz. Ikaragarria da. Diru sarrera egonkor bat izatea lagungarria da. Bazkide egiteko deia egiten dugu. Gura duenak gure standetik edo lokaletik igaro daitezke", adierazi du Lorenzok.



50 opari zotz egingo dituzte urtarrilaren 8an.



Iñaki Uribe eta Petri Estudillo.

## “Gabon hauetan utzi dena gure esku; menua osatzeko behar duzun guztia eskainiko dizugu”

Iñaki Uribek eta Petri Estudillok dena prest dute Gabonetako menuak dakartzaten buruko minak uxatzeko

### GABONAK • EKAITZ HERRERA

Gabonen atarian gauden honetan, urteroko buruko minak: "Afaltzeko, arraina ala okela?", "Zelan despedituko dugu urte zaharra?", "Nork ekarriko ditu hasierakoak eta nork prestatuko du plater nagusia?". Horrelako kezka ohiko kontua dira Durangaldeko etxeetan, baina, zorionez, badira bizimodua errazteaz arduratzen diren zerbitzuak. Durangoko Saltsan Catering etxeko kideek behintzat, buruko minak kendu eta menuak modu ezin erosoagoan diseinatzeko aukera eskaintzen dute. Iñaki Uribek eta Petri Estudillok gidaturiko lantaldeak

Gabonetarako karta berezia sortu du. Hasierako platerik finenak, arrainik freskoenak, okelarik zapoetsuenak zein gozokirik artisauenak topatu daitezke dendan. Dena daukate bertan. Nahikoa da Saltsanera joan, jatekoa enkargatu eta data seinalatu horietan dendan bertan jasotzea. Uribek eta Estudillok hainbat jaki proposatu digute. Hasi gaitezen menuagaz. Zer enkargatu dezakegu Saltsanen, hasierako plater modura? Petri Estudillo: Aukera zabala dauka-gu hasierako plateretarako. Alde batetik, guk kozinaturiko plate-

rak daude, eta, bestetik, baditugu iberikoak, ketuak, gaztak, ostrak, itsaskiak eta bestelakoak. Dena dela, gure kartako izarra arrain zopa da, hasierakoei dagokienez. Gure kroketek ere oso harrera ona izaten dute. Eta barazkijaleak direnek ere aukera aproposa dute gurean. Barazki menestra aparta daukagu.

**Arrainaren kasuan, bakailaoa da plateren artean izarra. Hainbat modutan prestatzen dugu**

Plater nagusiaren txanda da orain. Zer topatuko dugu zuenean, etxean jo eta su hasi beharrik barik? Iñaki Uribe: Talde handi bi ditugu. Alde batetik arraina, eta bestetik okela. Arrainaren kasuan, bakailaoa da plateren artean izarra. Hainbat modutan prestatzen dugu. Kurutzia kaleko denda badugu bakailaoa, baina jakina, horretarako apropos-apropos den denda ere badaukagu Kaleba-

rrian: Makallau Saltsan. Askotari-ko bakailaoa topatu daiteke gure Gabonetako kartan. Pil-pilean, bizkaitar erara zein ajoarriero eran. Baina ez hori bakarrik. Kokotxak ere baditugu, eta baita legatz betea zein legatza saltsa berdean ere. Horrez gainera, txipiroiak eta begihandia ere prestatzen ditugu saltsan.

**Azpizuna bere zukuari, txerri masailak saltsan onddoekin mundialak daude. Baina okelen artean aipagarrienak karakolak dira**

Eta, okelari dagokionez, azpizuna bere zukuari, txerri masailak saltsan onddoekin mundialak daude. Baina okelen artean aipagarrienak karakolak dira. Karakolak saltsan. Postreara ailegatu gara. Zeintzuk dira eskaintzen dituzuen gozokiak? P.E.: Gure tartak aipatuko nituzke. Hostoreagaz egindako hostopilak, adibidez. Horrez gainera, kremaz beteriko hostore tututxoak ere

baditugu. Hemen bertan egindakoak dira guzti-guztiak, etxean egindakoak. Baina ez hori bakarrik. Eskaintza zabala daukagu turroi, polboroi, trufa, txokolate eta enparauetan. Egia esan, denerik topatu dezakegu hemen. Oso gozo dago dena, baina azpimarratuko nukeena da produktu bakoitza oso ondo eginda dagoela.

**Menua aipatu dugu, baina zelan hornitu dezakegu aipaturiko guztia albo-platerak eta edaria ipinita?**

I.U.: Gutizia asko dugu hemen. Esate baterako, izokina, mundu guztiko gaztaiak, hegaluzea, foie pixka bat. Kontserba latei dagokienez ere eskaintza zabala daukagu. Horrez gainera, ezin dugu gure bodega ahaztu. Garagardo eskaintza zabala daukagu, eta zer esanik ez ardo eskaintza: zuria, gorria, aparduna... Denerik daukagu hemen. Eta, zelan ez, baita gure sagardoa ere, euskal sagardoa. Baten batek zalantzarik badu, Kurutzia kaleko denda zein Kalebarriako Makallau Saltsanera jo dezake. Bestalde, saltsan.com atarian zein 688 773 205 telefono zenbakian informatu daiteke.

# Bitxikeriak

ANBOTOk istorio eta gertakari bitxi baten baino gehiagoren berri eman du aurten. Oker sartutako Donien Atxaren berri, esaterako; edo mimoak gura dituela adierazteko kapaz den txakurraren berri. Denentzako tokirik ez eta euretariko bost aukeratu ditugu. Hauek dira 2022ko istoriorik bitxienak.

## Bram, 'berba' egiten dakien Abadiñoko txakur 'influencer'-a

Nuria Orduñak modu berezia du Bran txakurragaz komunikatzeko. Alfonbratxo batean duen botoi sistema darabil. Bran-ek botoi horien bitartez komunikatzen du gose den, mimoak gura dituen, jo-

lasteko gogo duen eta beste hainbat kontu. Txakur 'influencer'-a da gainera, Tik Tok-en 2 milioi jarraitzaile ditu eta. Irailean 118.000 jarraitzaile zituen Instagramen, eta gaur egun 168.000 ditu.



Nuria Orduña eta Bran txakurra, ANBOTOk egindako elkarrizketan.

## Kamerak zelaian, onddoak zelan hazten diren erakusteko

Lau egunez onddoen hazkundea grabatu du kamera finko batek

Iro Landaluze perretxikolaria iazko albiste bitxien zerrendan izan zen, eta aurten errepikatu egin du. Orduan, bere hariztian baturiko otzara bete onddo erakutsi zuen bideo batean. Aurten, pauso bat harago joan da. Kamera berezi bat instalatu du Mendiolako harizti batean, eta onddoak zelan hazten diren filmatu du lau egunez eta lau gauetz. Udazkena sikua eta zoro antzekoa izan zen, baina perretxikoek ez zioten hutsik egin Landaluzeri.



Onddoak gauetz, kamerak grabatuta.

## Traña-Matienako Donien Atxa garabi batek zuzendu zuen

Traña-Matienako Donien Atxak gura baino lan handiagoa eman du aurten. Lehenengo, kostata igo zuten, eta gainera okertuta geratu zen. Biharamunean, udal arduranak Donien Atxa zegoen tokira bertaratu ziren egoera aztertzeko, eta oinarria garbitu beharra zegoela erabaki zuten, segurtasuna bermatzeko. Garabi bat eraman zuten horretarako. Txopoa bere tokitik atera, azpiko aldea garbitu, eta zuloan sartu zuten berriro, zuzen geratu zedin.



Jaietako txopa, okertuta.

## San Joan sua gura baino lehenago heldu zen Elorriora

San Joan sua gura baino lehenago heldu zen Elorriora; tradizioak markatzen duen moduan San Juan egunaren bezperan barik egun bat lehenago, hain zuzen ere. Ez udalak hala nahita, ezezagun batzuek su emanda baino. Egunetako lana eta egunetan baturiko material guztia behar zen baino egun bat lehenago geratu zen, beraz, errauts eginda. Biharamunean, udaleko brigadako langileek berriro prestatu zuten dena, materiala han eta hemen batuta, eta zegoen egunean su eman zioten herritarrek.



Elorri baturiko materiala, sutan.

## Lau lagunen arteko apustua herri kirolen pentatloi probetan

Fuldainek eta Sabalzak irabazi zuten, bost segundoko aldeagaz

Gorritz, Aitor Fuldain gatikarra eta Xabier Sabalza mungiarra. Urdirnez, Aitor Garitagoitia eta Gartxot Mugarza mallabitarrak. Herri kirolen pentatloian indarrak neur-

tu zituzten abenduan, Arrieta herriko plazan. Lehia estu-estuan bost segundoko aldeagaz baino ez zuten irabazi gorriek. Egongo ote da errebantxarrik?




Xabier Sabalza, Aitor Fuldain, Gartxot Mugarza eta Aitor Garitagoitia.

# BURUARI KLIK!



# LABIRINTOIA



# MATEMATIKA

Egin eragiketa hauek beheko oparien zenbakiak kontuan hartuta.

$$\text{Red gift box} = 4 \quad \text{Grey gift box} = 8 \quad \text{Purple gift box} = 3 \quad \text{Green gift box} = 1$$

$$\text{Grey gift box} + \text{Red gift box} - \text{Green gift box} = \boxed{\phantom{00}}$$

$$\text{Grey gift box} - \text{Purple gift box} \times \text{Green gift box} = \boxed{\phantom{00}}$$

$$\text{Purple gift box} / \text{Green gift box} \times \text{Red gift box} = \boxed{\phantom{00}}$$


# TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu opari hauek txikitik handira.



# LETRA ZOPA

Topatu Gabonekin zerikusia duten hamar berba letra zopa honetan.



O	K	P	E	A	O	I	A	Z	T	A	K	I
D	L	R	A	N	S	G	E	D	K	K	S	R
T	A	E	P	H	E	I	L	S	A	A	I	J
A	J	K	N	M	T	K	E	T	U	S	Z	O
O	A	I	E	T	E	G	N	I	M	T	A	S
G	D	R	O	T	Z	A	N	E	S	A	R	T
D	Y	R	N	R	K	E	A	U	L	H	R	A
J	R	S	L	N	I	H	R	R	S	A	A	I
E	E	U	O	R	P	I	E	O	G	M	L	L
O	B	B	O	E	T	A	T	O	S	I	K	U
T	A	Z	Z	U	H	A	I	T	Z	A	A	A
G	A	E	O	P	A	R	I	A	K	T	K	K
A	M	A	R	I	D	O	M	I	N	G	I	O



# DIFERENTZIAK

Topatu zortzi diferentziak.



# IKUSI ETA ERANTZUN

Beheko irudia ikusita, erantzun alboan dauden galderai.








- 1.- Zenbat lagun daude? \_\_\_\_\_
- 2.- Zenbat daude eskiatzen? \_\_\_\_\_
- 3.- Zenbatek daukate txapel urdina? \_\_\_\_\_
- 4.- Zenbat zuhaitz daude? \_\_\_\_\_
- 5.- Zenbat mendi tontor daude? \_\_\_\_\_




# LABIRINTOIA




# MARGOTU

Margotu irudia alboko koloreekin.




# ITZALAK

Itzalak lekuz aldatuta daude, zein da zeinena?



# Okm:

## *batzen gaituen distantzia*



**> anboto**  
**kide**

## **Abantailak**

### **EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA**

- %10eko deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

### **HITZ LIBURU-DENDA**

- %10eko deskontua euskarazko liburuetan.

### **HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA**

- %15eko deskontua sarreran

### **IURRETA KOPISTEGIA**

- %5eko deskontua eskola eta bulego materialean.
- %5eko deskontua musika, opari eta liburuetan.
- Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

### **KIROL ERROTA GIMNASIOA**

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

### **LANDAKO OPTIKA**

- %15eko deskontua eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean eta armazoi eta lenteetan.

### **MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA**

- % 5eko deskontua 100€ra arteko erosketetan.
- %10eko deskontua 100€tik gorako erosketetan.

### **NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA**

- %5eko deskontua produktu guztietan.

### **URRIKE LIBURU-DENDA**

- %5eko deskontua liburuetan
- % 10eko deskontua papergintzan

### **LA PERLA**

- %15eko deskontua forman jartzeko talaso zirkuituan
- %10eko deskontua osasun, lasaitasun eta edertasuneko banakako tratamenduetan

### **NAHIA HORTZ KLINIKA**

- %25eko deskontua garbiketa eta radiografiatan



# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez anbotokide!**

**anboto**  
**kide**



## Urteko azken saioa

BERTSOLARITZA DURANGO :: ABENDUAK 30

### Urteko azken bertso saioa bueltatu da Plateruena kafe antzokira

Urte biko etenaldiaren ondoren, urteko azken bertso saioa egongo da Durangoko Plateruena kafe antzokian, abenduaren 30ean. Ekitaldia 22:00etan hasiko da eta luxuzko bertsolari multzoa igoko da oholtza gainera.

Iruñeko Nafarroa Arenan jokatu berri den Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean

baturiko zortzi bertsolarietatik bost egongo dira Durangon, Maialen Lujanbio txapelduna euren artean. Beragaz batera arituko dira bertsoan Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal, Sus-trai Colina, Alaia Martin eta Aitor Bizkarra abadiñarra. Unai Iturriaga bertsolari durangarrak egingo ditu gai jartzaile lanak.



## 'Redada familiar'

ANTZERKIA ZORNOTZA :: URTARRILAK 13

### Jazarpenari buruzko komedia, Zornotza Aretoan

Etxean lasai afaltzen dabilen familia batek Delitu Informatikoen Unitatearen sarekada jasango du, familiako kideren bat susmagarri delako porno sare bat erabiltzeagaitik. Hori du abiapuntu Vaiven konpainiak Zornotza Aretoan aurkeztuko

duen *Redada familiar* obrak. Hasieran, denak dirudite egotzita delituen errudun. Hala ere, istorioak aurrera egin ahala ikuslea konturatuko da akusazioen oinarri diren artxiboak ez direla diruditena. Urtarrilaren 13an izango da, 20:00etan.

## Zinema

:: Durango  
ZUGAZA ZINEMA

• **Avatar (3D)**

barikua 23: 16:30 / 20:30  
domeka 25: 19:00  
astelehena 26: 16:00 / 20:00  
martitena 27: 16:00 / 20:00  
eguztena 28: 18:00

• **I wanna dance with somebody**

barikua 23: 18:15 / 21:00  
domeka 25: 19:30  
astelehena 26: 17:45 / 20:30  
martitena 27: 17:45 / 20:30  
eguztena 28: 19:00

• **Mundo extraño**

barikua 23: 18:15 / 21:00  
domeka 25: 19:30  
astelehena 26: 17:45 / 20:30  
martitena 27: 17:45 / 20:30  
eguztena 28: 17:00

• **Jonas Kaufmann:**

**It's Christmas**  
eguztena 28: 19:00

:: **Elorrio**  
ARRIOLA ANTZOKIA

• **Queso de cabra y té con sal**

domeka 25: 20:00  
astelehena 26: 20:00

### Abenduaren 23an

**BERRIZ magia**

'Magiaz Blai!' (Eriz Magoa),  
17:00etan, Berrizko Kultur  
Etxean.

### Abenduaren 23ra bitartean

**BERRIZ erakusketa**

'Bakardade ikusezina' Ruben  
Orozco Loza eskultore  
mexikarraren Mercedesen  
eskultura, Berrizko Kultur  
Etxean.

### Abenduaren 30ean

**DURANGO deialdia**

Arropa batzeko kanpaina,  
Durangaldeko Elkartasun  
Biltegiak antolatuta.  
17:00etan, Durangoko Andra  
Marian.

### Abenduaren 31ra bitartean

**ELORRIO erakusketa**

'Sei begirada. Kezkaz,  
misterioz bizitako uneak'  
Iturri kultur etxean. Begoña  
Colomo, Patxi Granada, María  
Otxandiano, Karlos Eriz eta  
Josu Urizarbarrena argazkilarien  
argazkiak biltzen ditu.

### Urtarrilaren 9a bitartean

**ZORNOTZA erakusketa**

'Euskal kulturaren  
nazioarteko atea', Bilboko  
Euskal Museoak antolatutako  
erakusketa ibiltaria.

### Urtarrilaren 12an

**ZORNOTZA musika**

Hendrik Röver & Los Miticos  
GTs, 18:00etan, Zelaietako  
kontzertu gelan.

### Urtarrilaren 13an

**DURANGO berbaldia**

'Zer dira muturreko  
gertakari meteorologikoak?'  
(Hizlaria: Onintze Salazar  
meteorologoa-Euskalmet),  
18:30ean, Bizenta Mogel  
liburutegian.

### Otsailaren 2ra bitartean

**DURANGO erakusketa**

'1882/1969 Ramon de  
Zubiaurre. Sorterriaren  
kolorea', Arte eta Historia  
Museoan.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

# LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

## Ohiko saltokietan salgai

# 2023

## Durangaldeko egutegia

<b>ABADIÑO</b>	Petite Abadiñoako estankoa
<b>ATXONDO</b>	Kiosko Atxondo
<b>BERRIZ</b>	Egunon okindegia
<b>DURANGO</b>	Etxebarria prentsa denda Hitz Liburudenda
<b>ELORRIO</b>	Tximeleta gozoki denda
<b>GARAI</b>	Herriko taberna
<b>IURRETA</b>	Iurreta kopistegia
<b>IZURTZA</b>	Herriko taberna
<b>MAÑARIA</b>	Herriko taberna Talka
<b>MALLABIA</b>	Herriko taberna
<b>OTXANDIO</b>	Korostondo janari denda
<b>ZALDIBAR</b>	Imendia prentsa denda
<b>ZORNOTZA</b>	Ayerdi prentsa denda



# “Afizioagaitik idazten dut, baina kritika egiteko ere oso baliagarria zait; oraingoan, faxismoa eta Eliza egurtu ditut”

Zigor Goitiandia zornotzarrak publikatzen duen bigarren nobela da 'Zaharkin santua'; Zornotzako Aierdi eta Bilboko Anti liburudendetan dago erosgai



Zigor Goitiandia.

**Zigor Goitiandia Estankona**

**Idazlea**

**ZORNOTZA | 1975**

eta horrelako paisaiak, baina, aldi berean, mugikorrek informazioa hain eskura egotea saihestu gura nuen. Flashbackak-eta badaude, eta harrigarria egiten zait ikustea zelan pertsonaia batzuek urteen joan-etorriagaz ere pentsakera berdinei eusten dieten.

Testuinguru horretan gustura egon arren, egia da dokumentatu ere egin naizela. Historiari fidela izatea gustatzen zait, eta ni dokumentatzeaz gainera, historialari adituei ere galdetu diet. Interneten informazio asko dago, baina ez da hain baliagarria sakon lantzeko. Hori bai, argi utzi gura dut ez dela nobela historiko bat.

**Izenburuagaz eta azalagaz despistean jolas egin duzu, beraz.**

Bere arriskua izan zezakeela esan zidan editoreak, eta publikatu aurretik liburua irakurri zutenek ere esan zidaten hori. Baina nik horrela egin gura nuen. Ni ez naiz Ken Follet, ez dut liburuak saltzeko premiarik. Irakurtzen dutenek sorpresa hori hartzea gura dut, eta askea naiz gura dudana moduan publikatzeko. Ondo pasatu dut idazten, eta irakurleak ere ondo pasatzea gura dut. Jakina, laguntza ere eduki dut, diseinuagaz, maketazioagaz, euskarazko testuekin...

**Hizkuntza bitan argitaratu duzu liburua, euskaraz eta gaztelaniaz.**

Aurrekoa nire lehenengo liburua izan zen eta argitaratu izanak bakarrik sekulako ilusioa egin zidan. Afizioagaitik egiten dut hau, eta inbertsio ekonomiko bat egin nuenez gaztelania lehenetsi nuen hori berdintzeko. Hala ere, zor moduko bat sentitzen nuen, euskara delako nire ama hizkuntza. Aurreko liburuak irabaziak ekarri zizkidanez, oraingo hau euskaraz eta gaztelaniaz kaleratzea erabaki nuen. Neuk idatzi ditut bertsiio biak, eta, egia esateko, gustura aritu naiz zati batzuk euskaratzen eta beste batzuk gaztelaniara itzultzen.

**Non erosi daiteke liburua?**

Zuzenean nigaz hartu-emanetan ipinita, edo, bestela, Zornotzako Aierdi eta Bilboko Anti liburudendetan. Nik ez dut promoziorik egiten, aspertu egiten nau. Idazten naiz zoriontsua.

**LITERATURA • ARITZ MALDONADO**

Zigor Goitiandia zornotzarrak bere bigarren liburua publikatu du oraintsu: *Zaharkin santua*. Euskaraz eta gaztelaniaz kaleratu du. Lagun talde batek abentura bat biziko du hainbat sekretu gordetzen duen liburu honetan; lehenengo sorpresa azalagaz jasoko du irakurleak. *El camaro destartado* lehenengo liburuan egin zuen lez, estilo bizia erabili du Goitiandiak. “Nahiko estilo zinematografikoa erabili dut bietan, atal laburrekin eta egituraketa anarkiko batez; elkarrizketei ere garrantzi handia ematen diet”, esan du Goitiandiak.

**Gaiz eta erregistroz aldatu duzu liburua honetarako.**

Gauza asko idazten ditut, erregistro ezberdinetan. Aurrekorako, aukeratu nuen formatua nahiko zinematografikoa izan zen. Zelanbait esateko, Quentin Tarantino bere pelikuletan erabiltzen dituen ezaugarriak erabili gura

nituen; metafora hiperbolikoak, adibidez. Oso ondo pasatu nuen *El camaro destartado* idazten, eta jaso nuen erantzunagaz ere pozik geratu nintzen. Oraingo honetan istorio guztiz desberdin bat idatzi dut; pertsonaiek ez dute zerikusirik, baina formatuak bai. Hemen ere badaude pertsonaia esku

**“Zor moduko bat sentitzen nuen aurrekoa gaztelaraz soilik kaleratuta, nire ama hizkuntza euskara delako”**

artean zer objektu duten ez dakitenak; beste pertsonaia batzuek ihes egitea tokatzen zaie. Hemen ere Bilboko San Frantzisko kalean eta inguruetan kokatzen da akzioa. Ihesaldian gauza desberdinak gertatzen zaizkie, eta horietariko bakoitza sekuentzia

zinematografiko bat balitz lez kontatzen dut.

Akzio berdinak ikuspuntu desberdinetatik kontatzen ditut. Hortik, gurata bilatu dudana estruktura anarkikoa. Kapitulu bakoitza irakurtzean baliteke guztiz ez ulertzea zer gertatzen dabilen, baina gurata bilaturiko efektua da. Lehen aipatu dudana egitura zinematografiko hori bilatu dut, *Snatch* (Guy Ritchie, 2000) edo *Airbag* (Juanma Bajo Ulloa, 1997) filmeetan ikusi daitekeenaren antzera.

Idatzi aurretik, atalak laburrak izan behar zirela erabaki nuen. Hizkuntza zuzena erabili dut, deskripzio askorik bakoa; gurago dut elkarrizketen bitartez egin deskripzio horiek. Zerbait gehiago azpimarratzekotan, umore beltzaren erabilera nabarmenduko nuke. Kritika egiteko oso baliagarria zait. Kasu honetan, nazismoa, faxismo italiarra, frankismoa... izan ditut jomugan; nik disfrutatu egiten dut idazten, baina *ostia txar* hori atera-

tzeko ere baliagarria zait. Eskuin muturra gora egiten ari da leku askotan eta horrek arduratu egiten nau. Elizari eta monarkiari ere bota diet gezia, baina beti ahalegindu izan naiz fundamentu historikoa egiten. Gertakizun historiko batzuk benetakoak dira eta aurreko liburuagaz ere gertatu zitzaidan

**“Liburua Zornotzako Aierdi eta Bilboko Anti liburudendetan dago salgai; bestela niri eskatu”**

irakurle batek baino gehiagok harrituta galdetzea hori, ea zelan zen posible horiek benetan gertatzea.

**Aurrekoan lez, 80ko hamarkadan kokatzen da istorioa, beraz.**

Istoria hurbilekoa izatea gura dut, baina ez gaur egungoa. Gustuko ditut autoak, bideak euren hotelekin





Ianire Aguirre, Javier Crespo, Alicia Gallardo eta Mikel Garaizabal.

## Zaldizkoak, kantaoreak eta musikariak bat, probalekuan

De norte a sur taldeak 'Leyenda, no me olvides' ikuskizuna egingo du urtarrilaren 14an

**DANTZA • ARITZ MALDONADO**

Alicia Gallardo De norte a sur elkarteko zuzendariaren koreografia bategaz, Abadiñoko Probalekua zezen-plaza bihurtuko da egun batez. *Leyenda, no me olvides* ikuskizuna estreinatuko dute bertan, hain zuzen ere, urtarrilaren 14an. Ikuskizunean parte hartuko duten zaldi bietako bat da Leyenda -bestea Ebano deitzen da-, eta ume baten eta zaldi horren artean sortzen den hartu-eman da istorioaren abiapuntua. Gallardoren berbetan, emanaldia erronka handia izaten ari da. "Abereekin lan egitea ez da

erraza, baina jendea oso gogotsu dago". Logistikoki ere erronka handia da ikuskizuna, izan ere bi zaldizkoek gainera, hogeitakantaorek eta dozena erdi musikariek ere parte hartuko dute. Sarrerak Errota kultur etxean eta Udal Mediatekan daude eskuragarri, zortzi euroan.

Ekitaldiaren ideia Abadiñoko Udalak San Miguel de la Ribera (Zamora, Espainia) herrira egindako bisitan dago; herri biak senidetuta daude. Bertara egindako bisita ofizialean zaldi ikuskizun bat ikusi zuten, eta hor sortu zen Abadiñora antzeko ikuskizun bat ekartzeko

aukera. Mikel Garaizabal Abadiñoko alkateak ekitaldiaren tamaina nabarmendu du: "Ajustu garrantzitsua da udalarentzat, herriko pertsona asko dabil-eta lanean jendeari muntaia original bat eskaintzeko; formatu handiko ikuskizuna izango da, probalekurako beren-beregi sortua". Bestalde, Javier Crespo alkateordeak proiektuak pizturiko ilusioa nabarmendu du: "Ez genuen dudarik izan hasieratik, elkartearen konpromisoa, udalerrian duen inplikazioa eta bere jarduerara maila ezagututa".

## Alertak hardcore doinuuz beteko du Plateruena berriro

Durango Udalak Gabonetako egitaraua antolatu du; Alertaren kontzertua 22:00etan hasiko da

**MUSIKA • A. M.**

Oraindino Durango Azokako doinuen oihartzuna entzun daitekeela helduko da beste kontzertu bat Plateruena Antzokira. Gaurkoan Alerta talde durangarraren hardcore doinuen txanda izango da; boskote durangarrak 25. urteurren bira borobiltzeko aukera bikaina izango du gaur, 22:00etan. Izan ere, taldeak kontzertua eman behar zuten Durango jaietan, baina taldekide bat gaixotu egin zen eta ezin izan zuten jo. Taldekideek mende

laurdeneko ibilbidea ospatu gura dute ingurukoekin.

Alerta taldea 1997an sortu zen eta lau lan luze kaleratu dituzte euren ibilbidean; azkena, *Tú decides el final*, 2019an. Aurretik, *Devhil*, *Siempre más fuertes* eta *Seguimos creyendo* lanak argitaratu zituzten. Sorreratik metal doinuak jorratu dituzte, hardcore doinuekin uztartuta. Osasun pandemiak oztopatu arren, Espainiako Estatuan hainbat kontzertu eman dute mende laurdeneko biraren harira.



Alerta taldea.

## Gai librean

### Isilaraziak XI

Orain dela hilabete batzuk jakin nuen Ane Lekuona Mariscal arte historialariak San Telmo museoan María Paz Jimenez artistari buruzko hitzaldia eman zuela. Aitortu beharra daukat Jimenezen izena ez nuela aurretik entzun. Kuriositatea piztu zitzaidan eta Interneten bilatzeari ekin nion. Ezer gutxi aurkitu nuen baina atentzioa deitu zidaten bere lanek. Puntu naif bat duten lanak aurkitu nituen lehenengo, ume baten ikuspuntutik eginda egongo balira bezala, kolorez beteak. Baina beste lan batzuetan tonu surrealista erabiltzen du (Georgia O'Keeffe edo Maruja Mallo handiak ekarri zizkidan burura. Azken honi buruzko erreferentziak aurkitu dira Jimenezen artxiboan eta bien artean harremana izan zezaketen). Hori gutxi balitz, beste lan batzuetan arte abstraktua lantzen



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo  
Durango Museo

### Eskerrak eman nahi dizkiot WikiEmakumeok lantalde finari; emakume isilarazi askori ahotsa eman diozue

du, oso era interesgarrian gainera (euskal panoraman abstrakzioa landu zuen lehen artistetako bat izan zen, eta garai-ko giro intelektualean barneratu zen, frankismoak nahiago zuen feminitatearen imajinarioaren aurka). 1909an jaio zen, Valladoliden, baina umea zela Donostiara joan zen bizitzera. Gaztea zela, Hego Ameriketara joan zen eta bertan egin zituen arte ikasketak, baina ez zuen inoiz eten Euskal Herriko arte munduarekin eta artistekin izan zuen harremana. Oso artista interesgarria da benetan,

eta Lekuonaren hitzaldian argi geratzen da hori. Youtuben ikusi daiteke hitzaldi osoa, eta honi esker ezagutu dut ondo Jimenezen lana. Hala ere, Interneten eta aipatutako bideo hau kontuan hartu gabe, ohi den bezala emakumeen kasuan, ez nuen gauza handirik aurkitu. Hori dela eta, harremanetan jarri nintzen Marisa Barrenarekin, eta proposamena bota nion: María Paz Jimenez buruzko Wikipediako orria egin behar zutela. Esan eta egin. Handik hilabetera eginda zuten dena. Orain, euskaraz, María Paz Jimenez artista handiak Wikipediako orrialde propioa dauka. Eskerrak eman nahi dizkiot WikiEmakumeok osatzen duen lan-talde finari. Zuei esker, emakume isilarazi askori ahotsa eman diozue. Gutxi batzuk bagara ere, guztion artean oihartzun handiagoa lortuko dugu. Emakumeon ahotsa inoiz baino altuago entzutea lortuko dugu.



**Ainhize Belar Barrutia**  
Eskalatzailea  
ATXONDO | 2006

## “Datorren astean berriro Margalefera joango gara azkenengo pausoan jausi nintzen 8Ca igotzera”

16 urte baino ez, baina eskalada munduan lorpen baten baino gehiagoren protagonista izan da Ainhize Belar atxondarra

**ESKALADA** • JOSEBA DERTEANO

Ainhize Belarrek sen eta talentu bereziak ditu eskaladarako. Estatuan, 8c zailtasuneko bide bat eskalatu duen emakumerik gazteena da. 2020an izan zen eta 14 urte zituen. Harrezkero, zailtasun berdineko beste bi igotitu eta laster laugarren bat igotzen ahaleginduko da.

**Zelan zaletu zinen eskalada mundura?**

Aitak zaletu ninduen. Eskalatzailea da eta asteburuetan beragaz joaten nintzen. Durangoko kiroldegiko rokodromora joaten ginen eta arroketera ere bai, Araotzera, Oñatin. Ikastolan eskaladako ikastaroa zegoen eta han ere ibili nintzen. Lagunak zebiltzalako hasi nintzen. Dibertitzeko hasi nintzen, baina apurka geroago eta gehiago gustatu zitzaidan. Orduan ez nuen pentsatzen gaur egun nagoen tokira helduko nintzenik.

**Gaur egun non entrenatzen zara?**

Pedro Bergua entrenatzaile ezagunagaz nabil. Internetez bidaltzen dit planifikazioa eta gero ni neure kabuz entrenatzen naiz. Entrenamendu saioen arabera erabakitzen dut nora joan. Esaterako, orain Sputnik berria zabaldu dute Berangon, oso ondo dago eta askotan joaten naiz.

**Gustura zabilta zeure kontura entrenatuta?**

Pertsona ordenatua naiz, dena zehatz-mehatz eramatea gustatzen zait, eta, beraz, neure kontura ibilita oso gustura nabil. Askok gustatzen zait eskalada eta ez zait entrenatzea kostatzen. Eskaladarik barik, ez dakit, hutsune moduko bat sentituko nuke. Eta argi dut hobetzeak dedikazioa eta sakrifizioa eskatzen dituela. **2020an ezagutu zintuen munduak, 14 urtegaraz 8c zailtasun mailako Gezurren erresuma bidea igo zenue-**

**nean. Zelan gogoratzen duzu prestaketa eta igoera bera?**

Sasoi hartan Gaubeara (Araba) joan ginen askotan, COVIDagaitik ezin genuelako Euskaditik irteten. Bideak egiten hasi nintzen, hurrengo aurrerakoa baino gatzagoa. Azkeneko, 8b gutxi geratzen zitzaizkidan eta 8c bat probatzea erabaki nuen. Hura beste kontu bat zela konturatu nintzen. Baina apurka aurrerapausoak eman eta motibatu egin nintzen. Uda zen eta bero handia egiten zuen. Urriari bueltatu eta orduan igo nuen.

**Orduan bazinen kontziente lortu zenuenaz?**

Momentuan bertan ez nintzen hain kontziente. Hedabideetan irteten hasi nintzen, “8c bat egiten gazteena” eta horrelako titularrak irakurritak. Jende askok zoriondu ninduen eta lotsa apur bat ematen zidan. Gerora, egia esan, asko pozten nau non hasi nintzen eta nora heldu naizen ikusteak.

**Bigarren 8c-a Skin Dead izenekoa izan zen. Zelan joan zen?**

Gutxiago kostatu zitzaidan. Badakizu non sartu zaren eta zer topa-

tuko duzun. Bide hau ere Gaubean dagoenez, ez nuen eskalada estiloa aldatu beharrik izan.

**Hirugarrena, Kulun Gele. Denetan gatxena?**

Bai, gatxena. Beste biak horma zuzenak dira. *Kulun Gele*k desplomea du eta, gainera, pauso luzeak ditu. Orain urte bi ezingo nuen egin, inondik inora.

**Buruan duzu laugarrena?**

Ea urte amaieran lortu dezake-dan. Zubiko lau egunetan Margalefen (Katalunia) egon nintzen. 8c baten azkenengo pausoan jausi nintzen. Datorren astean berriro joango gara eta 8c hori igo gura nuke.

**Aurten txapelketa askotan ere parte hartu duzu. Zelan uztartu dituzu arrokagaz?**

Txapelketa mordoa izan dut, bai, eta arroka eta txapelketak ez dira bateragarriak. Txapelketetako mugimenduak oso espezifikoak dira eta rokodromoan entrenatu behar da, derrigor. Ordu nahikotxo sartu dut rokodromoan. Pena apur bat eman dit, arroka asko gustatzen zait eta.

**Maila absolutuan Bizkaiko boulder txapelketa irabazita hasi zenuen urtea. Zelan joan dira horren osteoak?**

Azaroan, Espainiako boulder eta soka txapelketak irabazi nituen, 18 urtez azpiko mailetan.

**Inoiz parte hartu duzu Europakoan?**

Bai. 14 urtegaraz Belgikan egon nintzen, eta 15egaz Austrian, Frantzia eta Ingalaterran. Ikastera joan nintzen. Azkenean esperientzia behar duzu, ze hemen inguruan ez dugu konpetiziora moldaturiko rokodromorik.

**Urte hau amaitzeaz dago. Zer eskatzen diozu 2023ari?**

Espainiakoak berriro irabazten ahalegintzea, Europakoan lan ona egitea eta arrokan beste 8c edo 8c+ bat lortzea.

**Hemendik 10 urtera eskalatzen ikusten duzu zeure burua?**

Bai. Argi dut ez dudala bizitza osoan lehiatzen aritu gura, baina arrokan jarraituko dut, asko ematen dit eta.



Ezkerrean, Ainhize Belar erdian, Espainiako txapelketan. Eskuman, Ainhize Belar 'Gezurren erresuma' horma igotzen.

# Abenduaren 31ko finalistak erabakita Zaldibarko Olazar pilota txapelketan

Gizonen lau eta erdikoan Beñat Zubizarretak eta Oier Ariztegi neurtuko dituzte indarrak



Irailetik hona eguenero egon dira jardunaldiak Zaldibarko pilotalekuan. **JULEN URIBE**

## PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Hileetako lehiaren ondoren, Zaldibarko Olazar txapelketa azken txanpara heldu da. Atzo azken finalerdiak jokatu zituzten eta aurtengo irabazleak nortzuk izango diren jakitea baino ez da falta. Urtero lez, finalak Gabon zahar egunean jokatuko dira, 16:00etan.

Gizonen lau eta erdiko finalen Beñat Zubizarreta ataundarrak eta Oier Ariztegi baztandarrak neurtuko dituzte indarrak. Biek ala biek merezita lortu dute sailkapena. Finalerdiak dira ho-

rren lekuko. Orain aste bi, Zubizarretak erraz menderatu zuen Ekhi Irribarria: 22-8. Kuriositate modura, gazte biak profesionalen dabilen Iraitz Zubizarretaren eta Iker Irribarriaren anaiak dira. Bestalde, Ariztegi 22-16 irabazi zion Egigureni. Baztandarra 8-1 aurreratu zen, baina Egigurenek buelta eman zion partidu erdirako: 9-12. Ondoren, parean aritu ziren tanto batzuetan (16-14), harik eta azken txanpan Ariztegi nagusitu zen arte. Ariztegi Nafarroako txapelketa irabazi berri du eta sasoiko jokatuko du Zaldibarko finala. Bina-

ka, De la Fuentek eta Aldabek 22-15 menderatu zituzten Mata eta Irurita, orain urte biko bikote txapelduna. Emakumeen lau eta erdikoan Olatz Arrizabalagak erraz sailkatu zen finalerako, Leire Garairen kontra: 22-8.

Azken finalerdiak atzo gauean jokatu ziren: Amaia Aldai Miren Larrarteren aurka lau eta erdian, eta Igoa-Ugartemendia eta Murua-Ezkuza bikoteak gizonen binakakoan. Emaitzak [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean ikusi daitezke.

# Kulturalak Durango Sukia F7 txapelketa antolatu du

Abenduaren 26an eta 27an ligaxketako partiduak jokatuko dituzte; finalak abenduaren 28an izango dira



J. Cedrun (Sukia), A. Irasuegi (Kulturala) A. Abanzabalegi zinegotzia eta J. Díaz de Cerio (Kulturala).

## FUTBOLA • J.D.

Durango Kulturalak Futbol 7ko Durango Sukia txapelketa antolatu du Tabira futbol zelaian. 25 klubetako 48 taldek parte hartuko dute, maila bitan: 2012an eta 2014an jaiotakoek. Eskualdeko talde bik parte hartuko dute: Durango Kulturalak eta Gertasportek. Barakaldo, Getxo, Lekeitio eta Ermua dira torneoan parte hartuko duten beste herri batzuk.

2014an jaiotakoek abenduaren 26an jokatuko dituzte ligaxkako partiduak. 2012ko umeen txanda abenduaren 27an izango da. Egun

bietako ordutegia honako hau izango da: 09:30etik 13:15era goizean, eta 15:30etik 19:15era arratsaldean. Azken fasea abenduaren 28an izango da. Goizean kimu

**25 klubetako 48 taldek parte hartuko dute; tartean daude Durango Kulturala eta Gertasport**

mailako gazteek jokatuko dute eta arratsaldean haur kategoriakoek. Eguneko sarreraren prezioa 3 euro da; egun biko bost euro da.

## Jokaldia

### Munduko beste txapelketa bat

Azken urteotan emakumezkoen kirolak sekulako jauzia eman du. Horren adibiderik garbiena Zeelanda Berrian urrian eta azaroan jokatutako emakumezkoen Munduko Errugbi Txapelketa litzateke.

Argi dago gizonen Munduko Futbol Kopak izan duen oihartzuna ez duela lortu, baina apurka-apurka lehiaketa hauek beraien lekua hartzen doaz. Urrian hasitako txapelketa honetan 12 taldek hartu zuten parte.

Hasiera-hasieratik lau favorito argi ageri ziren: Kanada, Frantzia, Ingalaterra eta anfitrioiak, hau da Black Ferns delakoak. Partidak goi mailako zelaietan jokatu izan dira. Esaterako, finalerdiak eta finala Aucklandeko Eden Park zelai ezagunean jokatu ziren. Finala azaroaren 11n jokatu zen, Aucklanden. Ten-



Gotzon Gomez Barrenetxea  
Errugbia

**Azken urteetan emakumeen kirolak sekulako jauzia eman du. Horren adibide da Munduko Errugbi Txapelketa**

**Inaugurazio partidan 34.235 zale egon ziren, eta finalean 42.579 ikusle bertaratu ziren**

tsioa giroan antzematen zen. Lehenengo Munduko Txapelketan AEBetako neskek garaipena lortu bazuten ere, geroztik txapeldunak ingelesak (bi alditan) eta Zeelanda Berrikoak (bost alditan) izan dira, beraien nagusitasuna erakutsiz. Aipatu behar da, arlo honetan ere urrats garrantzitsuak eman direla profesional-

tasunaren bidean. Adibidez, 2020. urteaz geroztik arrosaren taldeko jokalariek guztiz profesionalak dira, printzipioz munduko talde bakarra; ondorioz, beraiek irabazi dituzte VI nazioetako azken lau edizioak, ipar hemisferioan sekulako nagusitasuna erakutsiz.

Norgehiagokak interes handia piztu zuen, eta txapelketaren inaugurazio partidan 34.235 zale egon ziren. Edizio honetako finalean ikusleen marka guztiak hautsi ziren, guztira 42.579 ikusle bertaratu baitziren. Finala Zeelanda Berriak irabazi zuen, Ingalaterraren aurka: 34-31.

Txapelketa ederra izan da, emozioz beterikoa. Datorren urtean gizonen txanda izango da, kasu honetan ipar hemisferioan, Frantzian hain zuzen ere. Honen inguruan ere, lasai hitz egiteko aukera izango dugu, dudarik ez izan.

# DURANGALDE



## Jaiotzen erakusketa

Dendak Bai elkarteak erakusketa berezi bat antolatu du Errege Egunera arte. Luis Ibáñez jaiotzazaleak egindako hamar jaiotza ikusgai daude egunotan Durangoko beste hainbat komertzio edo tokitan. Irudietakoa Folder paper dendan dagoen jaiotza da. Nagusien kafetegia, Etxebarria liburu-denda, Gozatu gozo-denda eta Astigarraga harakindegia dira toki horietariko batzuk.

# KO TXOKOAK!



## Ramón de Zubiaurren erakusketa

Ramón de Zubiaurre jaio zela 140 urte bete direnean, margolari garaitarraren obrak batzen dituen erakusketa antolatu dute Durangon. Arte eta Historia Museoan ikusi daiteke, otsailaren 5era arte. Arabako, Bilboko eta Oviedoko (Espainia) Arte Ederren museetatik ekarri dituzte margolanak, besteak beste.



Azken urteak  
1940  
1969  
Últimos años

«Ramón de Zubiaurre (1881-1969) izan zen Durangoko margolari garaitarrena. Bere obrak batzen dituen erakusketa antolatu dute Durangon. Arte eta Historia Museoan ikusi daiteke, otsailaren 5era arte. Arabako, Bilboko eta Oviedoko (Espainia) Arte Ederren museetatik ekarri dituzte margolanak, besteak beste.»

**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguedo.com](http://www.inmoduranguedo.com)  
inmoduranguedo@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)

## // AUKERA

**AUKERA:** 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 116.000 €**  
**DURANGO:** Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E=F. 145.000 €.**  
**ZALDIBAR:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. terraa. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. garajea. **C.E.E.=F. 157.000 €**  
**BERRIZ:** (MURGOITIO) 80 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela, Terraza, Argitsua. **C.E.E.=E. 110.000€**  
**MATIENA:** 2 logela, komuna, sukaldea handia. Igogailua. **C.E.E=F.129.000**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** 2 logela eta komuna. Berriztatua. Ganbara. C.E.E=G **130.000 €.**  
**ABADIÑO:** 150 m2-ko terraza. Erdi berria. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=E 309.000 €.**  
**MARTXOAREN 8'KO:** Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E.= E. 318.000€**  
**ANBOTO:** 3 logela, komuna eta egongela. Eguzkitsua. **C.E.E=E. 190.000 €**  
**KOMENTUKALEA:** 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garajea. **C.E.E=E 239.500 €**  
**MONTEBIDEO:** 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Garaje bikoitza itxia. **C.E.E.=F. 275.00 €**  
**ASK. ETORBIDEA.** 119 m2. 3 logela, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garaje bikoitza. **C.E.E= E. 312.000 €**  
**KALEBARRIA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **C.E.E= F. 140.000€**  
**SAIBIGAIN:** Apartamentua./ Bulegoa. **C.E.E=F. 184.000 €**  
**TRONPERRI:** 117m2. Erdialdean. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Ganbara eta garajea. Solariuma eta txoko komunitarioa. **C.E.E.=F. 270.000 €**  
**EZKURDI:** 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. garajea aukeran. **C.E.E=E. 240.000 €**  
**ASK. ETORBIDEA:** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handia. Terraza. Garajea aukeran. **C.E.E= E. 275.000 €**  
**ABADIÑO.(TERESA LARIZ):** 81m2. 2 logela, komuna eta egongela. Terraza. Ganbara. **C.E.E.= E. 160.000 €**  
**JUAN OLAZARAN.** Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Eskegitokia. Garajea eta trasatelekua. **C.E.E= B. Jantzia.**  
**SAN FRANZISKO.** 3 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia ganbarekin. **C.E.E.=E. 195.000 €**  
**ABADIÑO:** Pabilioia: 17 m2. Bulegoa, aldagelak eta komuna. **ALOKAIRUAN/SALGAI. 180.000€**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Herriko Gudarien kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldea, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.  
**DURANGO:** Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldea, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.  
**DURANGO:** Antso Eztegi. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobeia.

## ABADIÑO

**ABADIÑO:** Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldea eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.  
**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**IURRETA:** Orozketa auzoa. Baserrri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.  
**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserrri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.  
**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserrri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.  
**ATXONDO:** AXPE. Baserrri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria  
**ATXONDO:** ARRAZOLA. Izugarritzko baserrri salgai. 40.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila. Berriztatzeko.  
**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.  
**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserrria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.  
**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuzeko.

## //BULEGOAK ALOKAIKUAN

**ABADIÑO**  
30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## www.inmoduranguedo.com

**DURANGO** 60 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**ANTSO ESTEGIZ:** Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Balkoia (itxia) Ipar/ hegoaldea. Leku onean kokatua ( Zinalde berdeak eta zerbitzuguneak) Alde zaharrean ondoan. Egoera onean. 5 m<sup>2</sup>-ko trastelekua.  
**169.000 € C.E.E: F**

**DURANGO** 104,54 m<sup>2</sup>  
4 logela  
**LARIZ DORREA:** Egongela, sukaldea, jangela 4 logela, despentsa eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Leku onean kokatua (Santa Ana) Hobekuntzak behar ditu. BI APARTAMENTU BIHURTZEKO AUKERA. INBERTSIO GISA IDEALA.  
**175.500 € C.E.E: E**

**DURANGO** 93,59 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**KOMENTU KALEA:** Halla, egongela, sukalde jantzia, komuna, despentsa txiki bat eta 3 logela. Etxe erdiak kanpora ematen du (ekialdea) Erdigunean kokatua. EZIN HOBEA/ ORAIN 4 URTE BERRIZTATUA. ITE oraintsu pasatakoa. Garajea +18.000€, etxebizitzatik metro batzuetara.  
**189.000 € C.E.E:F**

**DURANGO** 80,30 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**ASTEPE:** Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun, galeria eta eskegitokia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. 6,5 m<sup>2</sup>-ko trastelekua eta 10,80 m<sup>2</sup>-ko garajea. Hobekuntzak behar ditu.  
**224.000 € C.E.E: Bidean**

**MATIENA** 89 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**TRAÑABARREN:** Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia eta 38m<sup>2</sup>-ko terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. (hego-mendebaldea): Argitsua. Leku onean kokatua. 12 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. Egoera onean dago baina berrikuntzak behar ditu.  
**229.000 € C.E.E: F**

**MUNTSARATS** 70,4 m<sup>2</sup>  
2 logela  
**ARLOZABAL:** 2004.urtean eraikia. Galeria, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. (Zonalde berdeak.) 7.50 m<sup>2</sup>-ko trastelekua eta 14,29 m<sup>2</sup>-ko garajea. EZIN HOBEA.  
**189.000 € C.E.E: E**

## //DURANGO

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua eta igogailua. **192.000€/ E.E.Z= F**  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiargaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**  
**JOSEMIEL BARANDIARAN:** Logela, egongela, sukaldea balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**  
**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**  
**JUAN DE OLAZARAN:** 3 egongela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000€ / E.E.Z=B**  
**KOMENTU KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Ganbara. Garaje itxia aukeran. **LEHEN 230.000 € ORAIN 190.000 € / E.E.Z=E**  
**MONTEBIDEO KALEA:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **275.000€ / E.E.Z=F**  
**SAN FRANZISKO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**  
**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**  
**TRENBIDE KALEA:** 5 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 175.000€ ORAIN 150.000€ / E.E.Z=F**  
**//ABADIÑO**  
**MUNTSARATZ AUZO:** Baserrria. 2.750 m<sup>2</sup>-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **390.000 € / E.E.Z=D**  
**//BERRIZ**  
**BERRIZBEITIA:** 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **100.000 € / E.E.Z=G**  
**MURGOITIO AUZO:** Berreraikitzeo baserrria lurzorugaz. **290.000 €**  
**PADURE:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**  
**//GARAI**  
**MOMOTIO AUZO:** Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.  
**//IURRETA**  
**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**  
**//IZURTZA**  
**ELIZALDE AUZO:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**  
**//OTXANDIO**  
**OTXANDIO**  
**ZELAIETA AUZO:** Baserrria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **348.000€ / E.E.Z=BIDEAN.**  
**//GARAJEAK SALGAI**  
Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.  
**//BERRIAK**  
**DURANGO**  
**BARRENKALE:** 2 logela, sukaldea eta egongela. igogailua. **145.000€/ E.E.Z=G**

## Botikak

**BARIKUA, 23** · 09:00-09:00

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 24** · 09:00-09:00

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

ETXEBARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

UNAMUNZAGA,  
MURUETATORRE 2C - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

**DOMEKA, 25** · 09:00-09:00

MUGICA,  
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 26** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, URBITARTE  
POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 27** · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,  
MURUETATORRE 2C - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 28** 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUENA, 29** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak  
guztioi!

### GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Zorionak, **June!** Oso ondo pasa zure egunean. Muxu pila familia guztiaren partez. Maite zaitugu.



Lau urte egin dozuz, **Marina.** Neska aparta zara. Zorionak! Ondo pasau Gabonak eta ia Olentzerok zer dakarren.

## Eguraldia

ZAPATUA 12° / 18° ☁

ASTELEHENA 11° / 17° ☁

EGUAZTENA 8° / 15° ☁

DOMEKA 9° / 18° ☁

MARTITZENA 8° / 17° ☀

EGUENA 10° / 14° ☁

## ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



# "Argazkigintza digitalak askatasun gehiago eman du"

Julen Uribek 34 urte egin ditu argazkilari, eta orain Eneko semeari emango dio lekukoa. Argazkilari izatetik inoiz ere ez dela erretiratuko dio berriztarrak: "Beti izango naiz argazkilari"



**Julen Uribe**  
**Leanizbarrutia**

Argazkilari  
ABADIÑO | 1956

**Eneko Uribe Mata**

Argazkilari  
ABADIÑO | 1988

EDU AZPIRI

**BERRIZ • AITZIBER BASAURI**

Julen Uribek lau bat milioi argazki utzi dizkio Bizkaiko Foru Aldundiari, akordio batera heldu ondoren. Pilota partiduetan (esku pilota, trineta, zesta punta...) eta herri kirolean ateratako argazkiak dira gehienak. Baina badaude Akelarreetako irudiak ere bai, besteak beste. Hiru hamarkada baino gehiago egin ditu argazkigintzan, eta orain Eneko semeak jarraituko du.

**Julen, zerk bultzatuta hasi zinen argazkigintzan?**

**Julen Uribe:** Betidanik gustatu zait. Umetan txokolateagaz oparituriko argazki-kameragaz ibiltzen

nintzen. Ontzi gidari lez ere egin nituen 14 urte, 17 urteagaz itsasora lanera joan nintzen, eta orduan ere argazki kamera neraman beti. Singapurren erosi nuen lehenengoa, 'Canon A-1' bat.

**Eta urte hauetan guztietan deneriko argazkiak atera dituzu.**

**J.U.:** Bai. Instituzio eta administrazioarentzat lan egin dut, eta enpresentzako argazkigintza publizitarioan. Horrez gainera, txirrindularitzan, kamioi lasterketan, eta pilota eta zesta punta partiduetan atera ditut argazkiak. Ezkontzak ere egin ditut, eta Getxoko, Gasteizko eta Donostiako jazzaldietan ere ibili naiz.

Imanol, Paco Ibañez, Luhartz, Georges Moustaki, Xabier Amuriza, Benito Lertxundi, La Otxoa... horiekin guztiekin lan egin dut. Hertzainak taldeagaz 10 urtean ibili nintzen biran. Haiekin ezaugu nuen Evaristo.

**Eneko, aitaren testigua hartu duzu. Erronka handia izan da?**

**Eneko Uribe:** Bai. Hamar urte dira aitagaz argazkigintzan hasi nintzela, apurka joan naiz ikasten, eta hainbat eginkizun nire esku utzi ditu azken bost urteotan. Berarengandik, batez ere, eta bere bitartez ezaguturiko beste argazkilari batzuegandik jaso dut dakidan guztia. Aita erreferente

dut txikitatik, ordu asko eman du argazkigintzan lanean. Lan handia egin beharra dago. Gomendio asko eman dizkit, eta gure gora-beherak eduki arren pozik aritu naiz beti beragaz.

**Lanbidea baino gehiago da argazkigintza?**

**J.U.:** Pasioa dut. Argazkia ateratzeko, fotografiatu behar dudan horren ariman sartzen naiz, bere azalean jartzen naiz: hurbildu beharra dago, zure lekura ekarri. Ez da erraza izaten.

**Hiru hamarkadatan anekdota asko batu daiteke.**

**J.U.:** Batzuk. Agustin Ibarrolaren etxean bazkari bat dut gogoan. Imanol, Paco Ibañez eta George Moustaki ere bazeuden. Argazki bat atera behar nien disko azal baterako. Bat-batean, gai politikoak aipatu eta eztabaida itzela sortu zen. Pilotariekin ere oso

**Aita erreferente izan dut txikitatik, berak ordu asko eman du argazkigintzan. Lan handia egin beharra dago**  
ENEKO URIBE

hartu-eman estua izan dut beti. Pedro Mari Uriarteren eskutik sartu nintzen pilotan lanean, berak eman zidan aukera.

**Askok aldatu da urteetan argazkigintza. Zelan eragin dizue horrek?**

**J.U.:** Argazkigintza digitalak askatasun gehiago eman du eta ekonomikoki merkeagoa da. Lasaitasun gehiagoz egiten dira erretratuak, eta konpontzeko aukera ematen du. Onura asko ekarri du. Analogikoan asko findu behar zen argazkia, aurretik ondo pentsatu. Benetakoagoa zela esango nuke.

**E.U.:** Bai, aldaketa handia egon da. Eta mugikorrek min handia egin dute. Jendea erakartzen jakin behar da. Aitak ibilbide bat du eginda, izen bat. Lagungarria da. **Zein argazki mota duzue gustuko?**

**J.U.:** Erretratuak. Jendea aurrez aurre izatea gustatzen zait.

**E.U.:** Paisaiak gustatzen zaizkit.

## Lau-hortza

Markel Onaindia  
Txabarri  
Kazetaria



### Gazte gera gazte

"Gazte gera gazte, ta ez gaude konforme...". Trankil, ez dut nire gaztetasuna defendatuko, heldu naizela sano onartuta daukat eta jadanik. Kontua da Lourdes Iriondoren abesti hura kantatzen zuen gazte belaunaldiaz gogoeta egin izan dudala azkenaldian, alde batetik, Iurretako Goiuria ikastolaren ikerketan protagonista haietako asko ezagutu ditudalako, eta bestetik, duela egun batzuk Azkorbe hil izanaren notizia irakurri nuelako. Gerediagako kide historikoa, alfabetatze eskolen sustatzailea, Gure Eskuko ekintzailea... "Ez dut ezagutu militantzia bako bizimodurik", zioen 2017an Anboto-rako izan genuen berbaldi ederrean. Atzerago, bizar luze-luze hura zeramanean, lagunartean kariñoz komentatzen genuen kasik pertsonaje mitologiko baten airea zeukala. Biba zu.

Izan ere, lan miragarriak egin dituzte Azkorberen belaunaldikoek. Garai ilunetan eurek sortu edo aktibatu zituzten Gerediaga, Durangoko Azoka, AEK, ikastolak, UEU, jai batzordeak, EHE, Bertsozale elkarteak. Eta izango dira gehiago ere, nik ez dakizkidanak. Gaur egun garena ulertzeko balio duten zutabeak dira denak.

Gutasun berrien inguruan abestu zuten domekan, bertsoaritzaren jai handian. Argi geratu zen aroak aldatu egin direla, dibertsifikatu, eta eskerrak. Orain guri dagokigu zutabeak birkolokatu eta berriak altxatzea. Guri, eta, batez ere, atzetik datozen gazteei. Hori bai, zapaltzen dugun lurra eta ezarririk askatzen dugun kantua aintzat hartuta, eta nondik gatozen ahaztu barik.

## ESKELAK

946 816 558 · [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

[anboto.org/eskelak](http://anboto.org/eskelak)

Anbotokideek deskontua izango dute.

